

Teodoro Hernandorena

XIV. Ipuin Lehiaketa

© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: XXXXXXXXX

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza komunikazio grafikoa

Aurkibidea

A MAILA

1. saria:	Nairaren egunik zoriontsuena	7
	Uxue Velazquez	
2. saria:	Bi anai-arrebak eta mamuak	9
	Samara Rodriguez Moncada	
Aipamen berezia:	Izarretara noa	11
	Aimar Olazabal	

B MAILA

1. saria:	Bizirik gaude	13
	Mikel Rebollo Otegi	
2. saria:	Sugarra oinetan	16
	Aitziber Zubeldia Olasagasti	
Aipamen berezia:	Autobus miresgarria	20
	Ane Perez Arroyo	

C MAILA

1. saria:	Mikel eta ipuinetako ezpata	23
	Beñat Usandizaga Nieve	
2. saria:	Ilargira	27
	Alexander San Sebastian	

D MAILA

1. saria:	Ortzimugen arteko begirada	30
	Irantzu Zubeldia Olasagasti	
2. saria:	Maitasunaren presoak	37
	Sara Iriarte Lasa	

E MAILA

1. saria:	27 ordu	47
	Oihana Beraza Aldalur	
2. saria:	Direnik ez da sinetsi behar, ez direla ez da esan behar	52
	Maider Garin Bakero	



JOSE MARIA LUENGO
Zizurkilgo alkatea

.....

Agurra

“Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau” esaera zaharra askotan etortzen zaigu burura, gauzak espero bezala ateratzen ez zaizkigunean, eta aurreikuspenak betetzen ez direnean. Teodoro Hernandorena XIV. Ipuin Lehiaketaren kasuan, berriz, “Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lauhun eta berrogeita hiru” esateko moduan gara. Intxaurrondoa intxaurrez gainezka daukagu, sendo eta indartsu, eta itzal handia sortzen ari da Zizurkilen eta inguruko herrietan. Pozgarria da hori guretzat, Teodoro Hernandorena seme kuttunaren izena eta izana zabaltzen laguntzen baitigu.

Baina Teodoro Hernandorena ezagutzera emateaz gain, ezkutuko hainbat talentu argitara ateratzeko ere balio digu gure ipuin-lehiaketak. Hain zuzen, epaimahaikideek nabarmendu izan digute lehiaketara aurkeztutako zenbait lan oso maila handikoak direla, eta hori ohore handia da guretzat, etorkizuneko idazleen harrobia izan baitaiteke azkenean.

Kalitatea nabarmendu dut lehen, baina kopuru aldetik ere ez gara atzera geratu; izan ere, aurtien inoizko lanik gehienak jaso ditugu, hasieran aipatu bezala 443, hain zuen. A eta B mailako gaztetxoek egindakoak izan dira 292, eta C, D eta E mailako helduagoenak 151. Bost maila horietako 12 irabazleen lanak bildu ditugu liburuxka honetan.

Lehiaketan parte hartu dutenen maila txalotzeaz gain, txalotu beharrean naiz, baita ere, epaimahaikideen lana. Maila handiko idazleak ibili zaizkigu, fin-fin, lehiaketara aurkeztutako lan guztiak epaitzen. Ixabel Millet eta Joseba Aurkenerena ibili dira A eta B mailetakoko parte-hartzaileen lanak irakurtzen eta aztertzen, eta Maite Toledo eta JoxeMari Carrere, C, D eta E mailetakoeekin. Eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Urtero bezala, ezin ditugu ahaztu lehiaketan parte hartu duzuenon guraso, lagun eta irakasleak. Mila esker denoi, zuek guztiok gabe ezinezkoa izango baitzen heldu garen tokiraino iristea.

Teodoro Hernandorenak hainbat artikulutan aipatu zuen euskara arrisku bizan zegoela, eta euskaldunok ezer egin ezean eta dagokion balioa eman ezean, galdu egin zitekeela. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketa hartzen ari den neurria eta maila ikusiko balu, oso pozik egongo litzateke, eta itxaropena izango luke etorkizunera begira.

Gu ere itxaroperenez gainezka gaude, aurrera jarraitzeko ilusioz. Liburuxka honetan ageri diren lanak irakurtzean, harribitxi ugari aurkitu ditugu bertan. Ondare handia sortzen ari gara pixkanaka, eta aberastasun hori zurekin konpartitu nahi dugu.

Hartu denbora-tarte bat liburuxka honetako ipuinak irakurtzeko, eta ez zara hotz geratuko. Malkoak begi-ertzetan izango dituzu, ziur aski; batzuetan umorezko malkoak, besteetan tristurazkoak, bai eta emoziozkoak ere, ikusirik gaztetxo hauek zenbateko balioa duten. Utzi sentimenduei azalera ateratzen, on egingo dizu eta!

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Maite Toledo', with a long horizontal line extending to the right.



■ A. maila • **1. saria**

UXUE VELAZQUEZ

.....

Nairaren egunik zoriontsuena

Bazen behin Naira izeneko bederatzi urteko neska bat. Begi urdinak eta ile marroia zituen, nahiko luzea eta beti mototsa bat erabiltzen zuen. Aita eta amarekin bizi zen. Nairak oso gustuko zituen animalia guztiak, eta oso bereziki dortokak, baina gurasoek ez zioten uzten animalia bat bera ere edukitzen. Amak esaten zion lan gehiegi ematen zutela. Horregatik, Naira oso alaia zen arren, azkenaldian triste samar zebilen.

Bestalde, uda iristeko irrikaz zegoen. Bere etxetik hurbil hondartza bat zuten, eta itsasoan arrainak ikusi ahal izango zituen.

Hurrengo egunean udako lehen eguna zen.

- Azkenean oporrak! -pentsatu zuen Nairak.

Eguraldi zoragarria zegoen. Korrika sukaldera joan, eta amari galdetu zion:

- Non dago nire bainujantzia? Itsasora joan nahi dut igeri egitera!

- Hementxe daukazu –erantzun zion amak.

Naira logelara igo, eta bainujantzia jantzi zuen. Hondartzara iritsi eta ku-boa txirlaz bete ondoren, uretako betaurrekoak jantzi eta bainatzera joan zen. Gustura zebilen igerian, pentsatuz:

- Animaliaren bat banu, ze gustura biziko nintzatekeen, eta dortokak babilira... nire ametsa beteko litzateke.

Arrain koloretsuen artean gustura buzeatzen zebilela, halako batean, txirla antzeko zerbait ukitu zuela iruditu zitzaion. Betaurrekoekin ondo begiratu, eta bi txirla berde berezi ikusi zituen. Mugitu egin ziren!

Zerbait arraroa sumatzen zuen. Orduan, Nairak bi gauza horiek eskuetan hartu, eta bi burutxo agertu zitzaizkion. Posible ote da! Bi dortoka txiki ziren! Pozez dantzan hasi zen. Baina marea igotzen ari zenez, uhin indartsu batek dortokatxo bat urrutira bota zuen.

Nairak igerian dortoka salbatu nahi zuen, baina ezin izan zuen. Dortoka bakarrarekin hondartzara itzuli zen. Triste zegoen itsasoari begira, eta, bat-batean, beste uhin batek lehengo dortokatxoa ere hondartzara ekarri zuen. Hau poza!

Bi dortokak eskuetan hartu eta ziztu bizian etxera joan zen, gurasoei gertatutakoa kontatzera.

Emozioz beterik eta arnasestuka dena kontatu ondoren, Nairak galdetu zuen:

- Geratu al naiteke dortoekin? Mesedez, ama! Nik zainduko ditut, ez duzue lanik izango.

Gurasoek Naira horrelako ilusioz eta arduratsu ikusita, baiezkoa eman zioten. Nairaren egunik zoriontsuena izan zen hura.

Dortoka txikienari Txipi izena jarri zion, eta handienari, Lula. Primeran zaintzen zituen, egunero jana emanez, eta tarteka itsasora eramaten zituen jolastera.

Handik aurrera oso pozik bizi izan zen, bere ametsa bete-betean bete baitzen.



■ A. maila • **2. saria**

SAMARA RODRIGUEZ MONCADA

Bi anai-arrebak eta mamuak

Baziren behin anai-arreba batzuk, bat neska eta bestea mutila. Neskak Lola izena zuen eta mutilak, berriz, Riki. Mendian bizi ziren 2007. urtean, oso pozik bizi ziren.

Egun batean erabaki zuten paseotxo bat ematea. Bat-batean, bide ezezagun batetik joan ziren. Pixka bat aurrerago, etxe zahar abandonatu bat aurkitu zuten, eta soinu batzuk entzun zituzten. Kuriositatez, barrura sartu ziren:

- Non dago argia? -galdetu zuen Lolak.
- Ez dakit -erantzun zuen Rikik.
- Hemen dago, Lola, aurkitu dut argia.

Piztu zuen, eta bi mamu ikusi zituzten. Beldurraren beldur, Lola eta Riki builaka hasi ziren etxe guztitik. Mamuek ere susto handia hartu zuten, eta beraiek ere builaka hasi ziren. Lolak eta Rikik erdi puskatutako eskaileretan gora egin zuten, eta itoginak zituen teilatu azpian gorde ziren.

Hasieran uste zuten mamuak gaiztoak zirela, baina oker zeuden: mamuak oso txintxoak eta jolastiak ziren. Denak lasaitu zirenean, mamuak Lolari eta Rikiri hitz egiten hasi ziren:

- Kaixo, nola izena duzu?
 - Nik Lola, eta zuk?
 - Nik Retxi, eta nire lagunak Eskarfo.
 - Kaixo, ni Riki naiz. Aizue, zergatik eman diguzue susto hori?
 - Ez! Guk ez! Zuek argia piztean, sustoa eman diguzue -esan zuen Retxik.
 - Beno, ahaztu kontu hori -esan zuen Lolak.
- Mamuek gustuko zituzten Lola eta Riki, eta esan zieten:
- Nahi al duzue gure lagunak izan?

Lolak eta Rikik ere mamuak gustukoak zituzten. Beraiek baietz esan zieten, eta agindu zieten bisitatzera joango zirela. Lola eta Riki etortzen zirenean, mamuek sustoa eman nahi izaten zieten, baina Lolak eta Rikik bazekiten mamuak txintxoak eta beren lagunak zirela.

SAMI



■ A. maila • **Aipamen berezia**

AIMAR OLAZABAL

.....

Izarretara noa

Bazen behin Villabonan mutil bat izarretara joatea amesten zuena. Bere izena Alexander zen. Gauero-gauero, bere logelako leihotik izarrei begira jartzen zen, eta behin pentsatu zuen:

- Ni handia naizenean, astronauta izan nahiko nuke, izarretara joan ahal izateko.

Goiz batean Alexander gosaltzen ari zela, telebista piztu zuen. Bertan entzun zuen Iruran pilota lehiaketa bat antolatzen ari zirela. Lehiaketa horren saria izarretara bidaia bat zen. Amarengana joan, eta galdetu zion:

- Ama, joan gaitezke Irurako pilota lehiaketara?

- Bai, horixe! Eta zer irabazten du lehiaketaren irabazleak?

- Izarretara joatea da saria, ama. Nire ametsa betetzeko aukera edukiko dut, lehiaketa irabazten badut!

Irurara joan ziren. Frontoira sartu eta izena eman zuen. Aste bat eman zioten prestatzeko. Lehiaketa hasi, eta lehenengo partidua irabazi zuen. Final-laurdenetara pasa zen. Final-laurdenetako partidua ere irabazi egin zuen.

Oso pozik zegoen, pixkanaka-pixkanaka lehiaketan aurrera zihoan, eta final-erdietara iritsi zen. Partidu hori ere irabazi egin zuen, eta finala jokatzeko sailkatu zen. Finaleko partidua oso lehiakorra izan zen, berdintasun handia baitzegoen bi jokalarien artean. Baina, azkenean, asko saiatuta, Alexanderrek finaleko partidua ere irabazi egin zuen. Horrela, lehiaketako irabazle izendatu zuten. Alexander oso pozik zegoen, azkenean bere ametsa betetzera zihoalako.

Maleta kontu handiz prestatu zuen, etxean ezer ez ahazteko. Nola ez, bere argazki-kamera hartu zuen, izarrei argazki politak ateratzeko. Bidaia hasi zen, eta izarretara iristeko egun batzuk pasa zituen, baina hainbeste itxoiteak merezi izan zuen, izarrak ikustearren zuen emozioagatik.

HALA BAZAN ETA EZ BAZAN, SAR DADILA GURE PLAZAN!

Ehiztari gaztea

(8 urte)



■ B. maila • **1. saria**

MIKEL REBOLLO OTEGI

.....

Bizirik gaude

TRENA, 10 URTE

- Txokolatetxo, Txokolatetxo.
- Zer ama, zer?
- Kaxa ireki dute.

Kaixo, ni Txokolatetxo naiz, eta 2 urte dauzkat. Lagun asko ditut, eta orain-
txe bertan beraiekin nago. Beno, lagunekin bakarrik ez, herri guztiarekin.

Marroi koloreko zereal bat naiz. Gure kaxakoek bakarrik dakigu sekretua:
"BIZIRIK GAUDE". Gaur bertan ireki dute gure zereal kaxa, eta horrek esan
nahi du laster jan egingo gaituztela. Hori guretzat arazo handia da, gehiago
ez dugulako elkar ikusiko, batzuek behintzat.

Pixka bat beranduago, jaten hasi dira kaxa ireki duten pertsonak, eta he-
rritar batzuk dagoeneko desagertu dira. Laster nire familia, nire lagunak eta
ni desagertuko gara. Jan eta jan ari dira, eta orain koilaran nago. Nire familia
ia jan dute, eta nire lagun erdiak ere bai. Ni jatera doaz, eta builaka hasi naiz.

- AAAAAAAAAAAAA! LAGUNDU!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Espero nuen norbaitek kasu egitea, baina ez didate entzun, eta hor barruan nago. Ez dago oso ilun, baina pixka bat beldurtuta banago.

Ez nuen espero, baina lagunak eta familia hortxe ikusi ditut:

- Lagunaaak, aitaaaaa, amaaaa, hementxe nago zuen gainean.

Nik ikusten ditut, bai, baina beraiek ni ez... Builaka ari nintzen bitartean, zulo batetik erori naiz.

- Ijuju!!!! Bai dibertigarria hemendik jaistea.

Orain bai, orain ikusten naute denek. Hitz egiten geunden bitartean herri guztia jaitsi da, eta sekulako iskanbila sortu dute. Seguruenik, jan gaituzte-nek ere entzungo gintuzten, baina zer egingo diogu, jadanik jan gaituzte.

Denak pozik gaude, elkarrekin gaudelako. Mugimendu bat hasi da, eta denak beheraka joan gara.

- Hau da hau zorabioa! -esan dut.

- Bai, bai, Txokolatetxo, zuk esan duzu -esan du beste batek.

- Azkenean botaka egingo dut mugimendu zikin honekin -esan du nire aitak.

- Bueno, bueno, aita, ez esajeratu -esan dut nik.

- Nola esajeratu? - esan du aitak.

- Entzuten duzuna. Esajeratzen ari zara, ez zen hainbestekoa -esan dut nik.

- Seme, badakizu zereal batzuk azkar mareatzen garela, eta ni horietako bat naiz. Ulertzen duzu, seme?

- Bai, aita, ulertzen dut.

Aholku bat zereal umeentzat: hobe da helduei baietz esatea, bestela sekulako txapa botako dizuete.

Zurrunbiloa bukatu denean, beste txirrista bat zegoen, eta denak hortik jaitsi gera.

- IUJU!!!!

- Hori bai dibertigarria -esan du nire lagun batek.

- Hori, hori -esan du beste batek.

- Barkatu, baina konturatu zarete beherago gaudela? -esan du alkate jaunak.

Eta, beldurtuta, denak batera hitz egiten hasi gara.

- A, bai -esan du batek.

- Egia da -esan du beste batek.

Hurrengo egunean berriz hasi da zurrunbiloa, eta bi mendiren artean atera gara. Gure ondoan gauza zuri bat dago, bai eta zati marroi batzuk ere. Tsunami bat hasi da, eta eskuin-ekker hasi gara joaten. Azkenean ur pilo bat dagoen lekuan bukatu dugu.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, ATERA DADILA ZEREAL KAXAN.



■ B. maila • **2. saria**

AITZIBER ZUBELDIA OLASAGASTI

.....

Sugarra oinetan

Jendeak esaten du istorio zein kondaira guztiak etxean hasten direla. Hau ere horrelaxe hasten da. Baina istorio honetan, Errauskinek ez du zapatarik galduko, eta Edurnezurik ez du sagar pozoiturik jango. Istorioa horrela hasten da:

Nire etxeko eskailerak igotzen ari nintzen, buruan pentsamendu hau soilik nuelarik: “San Juanetako protagonista nagusia sua da, herriko plazan denak bildu eta liluratzen gaituen gertaera zoragarria”. Susmoa nuen aurtengo San Juan sua ezberdina izango zela, baita zerbait harrigarria gertatuko zela ere.

Hausnartzen ari nintzen bitartean, oihu batzuk entzun nituen:

- Ane, joateko ordua!

Zalapartari horiek, berriz ere! (zalapartariak neure gurasoak dira). Konturatu zareten bezala, Ane dut izena, txantxak egitea asko gustatzen zait, eta gaztaina-koloreko ilea daukat. Bukatu da nire aurkezpena. Beno, goazen istorioarekin jarraitzera. Ea, ea, non gindoazen... A bai! Gogoratzen naiz. Azkenean, sua ikustera joateko garaia iritsi zitzaidan. Sua benetan ikusgarria zen!! Ez nuen inoiz horrelako gauzarik ikusi. Sua da, hain zuzen ere, nik ikusi dudan gauzarik ederrena. Suaren ondoan jende mordo zegoen bildurik. Gu

ere hantxe kokatu ginen suaren alboan eginiko borobilean. Jendea egunkari eta liburu zaharrak botatzen ari zen San Juan sura.

Bat-batean, guk espero ez genuen gauza bat gertatu zen: suaren barrualdea dardarka hasi zen! Zerbait egongo balitz bezala. Zeinen gauza bitxia! Borobilean bilduta zegoen jende guztia harrituta zegoen. Ez genekien zer gertatzen ari zen, eta beldurtzen hasi ginen. Niri hotzikara sortu zitzaidan: alde batetik, erabat ikaratuta nengoelako, eta, beste aldetik, izugarritzko zirrara sentitzen nuelako. Jende guztia korrika hasi zen, alde batetik bestera.

Minutu pare bat igaro zirenean (iruditu zitzaidan egun erdia baino gehiago igaro zela), izaki bitxi bat atera zen suaren barrenetik, eta suaren goialdean kokatu zen. Sorgin bat edo antzeko zerbait izan behar zuen. Jendea oihuka hasi zen:

- Aaaa! Munstro bat!!!!

- Nor zara zu? -esan zuen herriko alkateak, ausart.

- Ja, ja, ja. Nor naizen diozu? Ez al dakizu hori oraindik? Pirea naiz, San Juan suetako espiritua.

- San Juan suetako espiritua, esan mesedez zer nahi duzun eta zertara etorri zaren.

Esaldi hori, ez duzue sinetsiko, baina nik esan nuen. Harrituta, ezta? Bada-kizue zergatik esan nuen? Bueno, lotsa ematen dit esatea, baina arrazoi on batengatik esan nuen. Jakiteko gogoz? Ongi da, ongi da, ez naiz gehiago luzatuko. Arrazoiak da eskolan gelako ordezkaria izendatu nindutela. Eta hori paper inportantea da oso. Ez duzue hala uste, lagun maiteok? Horregatik, nik pentsatu nuen esaldi hori esan behar nuela. Zeinen ergela naizen!

Segituan, Pireak esan zidan:

- Oi, xarmant hori. Zer diozu, ea zertara etorri naizen? Ba, egia esango dizut. Gu, San Juan suetako espirituok, su batetik bestera ibiltzen gara.

Eta Pireak ezin izan zuen esaldia bukatu, gizon burusoil batek hau galde-tu ziolako:

- Eta sua itzaltzen denean?

- Sua itzaltzean, lur-azpian geratzen gara. Eta ez eten ni hitz egiten ari naizen bitartean. Lehengoarekin jarraituko dut. Sua dagoen herria interesgarria iruditzen bazait, herria ikustera ateratzen naiz.

Mundu guztia txaloka hasi zen. Baina pozak ez zuen asko iraun, Pireari bere eraztuna erori zitzaiolako. Pireak ez zekien zer egin zezakeen momentu hartan. Eraztuna gabe ez zen ezer.

Herritarrek eraztunari begira-begira jarri ziren, eta gero mundu guztia eraztuna ikustera joan zen korrika batean. Batzuek eraztuna Pireari itzuli behar ziotela zioten, eta beste batzuek, alkateak adibidez, udaletxean utzi behar zutela, Andoaingo historiaren parte izan zitekeelako. Orduan, gerra moduko bat sortu zen. Paretetan kokaturik zeuden antortxak hartu zituzten, baita udaletxeko armak ere. Horrela, guda bat hasi zen.

Ni izkina batean eserita nengoen katramila hori ikusten. Bat-batean, elizako kanpaiak jotzen hasi ziren. 23:00 ziren. Zauritu asko zeuden: batzuk antortxetako suarekin erre egin zirelako, eta beste batzuk, berriz, ezpata bihoztetik sartu zietelako.

Bien bitartean, Pireak oraindik suaren goialdean jarraitzen zuen. Gertatzen ari zenarengatik kezkatuta, Pirea sutik jaitsi eta esan zuen:

- Nahikoa da! Oso eraztun baliotsua da niretzat! -egin zuen oihu gure espirituak-. Eraztuna neurea da, eta nik edukiko dut.

Pirearentzat eraztunak urrea baino gehiago balio zuen. Bere amak eman zion oroigarritzat, eta orain arte Pireak ez zuen eraztuna bere behatzetik kendu.

Begira aspertzen hasita nengoen, eta gerra hartan zerbait egin nahi nuen.

Istorioari amaiera jartzeko ordua iritsi zaio. Zer egin nuen azalduko dizuet:

Gizontxo horiek borrokan ari ziren bitartean, eraztuna nire ondora iritsi zen. Imajinatzen arituko zarete zer egin nuen, ezta? Nazkatuta nengoen gerra ero hartaz, eta eraztuna sutara bota nuen. Mundu guztiak harrituta be-

giratzen zidan. Pirea hasieran ere zur eta lur geratu zen. Baina gero, irribarre egin eta begien bistatik galdu genuen.

- Ane, etxera joateko ordua!!!!

Azkenean, heldu ziren nire gurasoak kotxearekin. Korrika joan nintzen autorantz. Pozik nengoen egin nuenagatik. Eserlekuan eseri, eta atzera begiratu nuen. Jende guztia gure autoaren atzetik zihoan korrika, baina azkar galdu genituen. Kotxean nengoela, oraindik ere sugarra oinetan sentitzen nuen.

Azkeneko gauza: Pirea nonbait sumatzen baduzue, kontuz ibili espiritua haserrarazi gabe.

Orain bai, agur esateko ordua iritsi da. Hurrengo San Juanetan ikusiko dugu elkar.



■ B. maila • **Aipamen berezia**

ANE PEREZ ARROYO

.....

Autobus miresgarria

Irailaren 8a da. Urtero bezala, Andoaingo haur guztiak eskolara joan behar dira. Baserri batean bi haur bizi dira, Mikel eta Leire, eta eskolara joan behar dira. Irtzargailuak jo du, eta biak esnatu dira, nagi handiarekin. Ama sukaldean dago gosaria prestatzen. Leirek, gosaltzen ari diren bitartean, amari esan dio:

- Ama, gaur zergatik esnatu gaituzu bederatzietan? Gaur astearte normal bat da, ez dugu ezer egin behar -esan du Leirek.

Eta amak:

- Nola ez dela egun garrantzitsu bat! -esan du, haserre-. Gaur eskolara joan behar duzue.

Mikelek esan du:

- Ama, gaur Xabier konturatuko zen eskola dugula?

- Bai, noski, Mikel!

Xabier autobus gidaria da. Mikel eta Leire autobusez joaten dira eskolara, eskola bere baserritik oso urrun dagoelako. Gosaltzen bukatu dute, eta jantzi egin dira dotore-dotore, eskolako lehenengo eguna delako.

Mikel eta Leire atean daude autobusaren zain. Ama ere atean dago. Mikelek, harriturik, esan du:

- Baina, begira zer ikusten dudan! Autobusa da.

- Begira, Xabier gogoratu da gaur eskola duzuela.

Autobusa iritsi, eta biek amari musu bat eman diote.

- Oso ondo pasa -esan die amak.

Mikel eta Leire autobusean sartu, eta eserlekuetan eseri dira. Xabierrek autobusa martxan jarri du, eta Mikelek esan dio:

- Aizu, Xabier! Autobusa martxan jarri duzunean, ez al du soinu arraro bat egin?

Leirek esan du:

- Nik ere entzun dut soinu arraro bat, baina nik uste dut normala dela, orain dela asko ez gara-eta autobus honetan ibili.

Xabierrek esan du:

- Ba nik ez dut entzun ezer.

Bat-batean, autobusak mundu polit eta distiratsu batera eraman ditu Xabier, Leire eta Mikel.

Mundu distiratsu honetan, Andoainen ez dauden gauza asko daude, adibidez: zuhaitzek kolore arraroa dute, hostoak urdinak dira eta enborra horia.

- Gure eskola ematen du -esan du Leirek.

Badago hondartza bat, baina hura ere arraroa da. Hondarra morea da, eta itsasoaren ura marroia.

Mikelek esan du:

- Begira, hondartza oso txukun dago, baina itsasoaren ura, berriz, ez dago oso txukun: ura marroia dago. Ze nazka!

Xabierrek eta Leirek esan dute:

- Arrazoi duzu, Mikel!

Baina hoberena ez da hondartza, beste gauza bat da: etxeak! Etxeek he-goak dituzte, eta nahi duzun tokira eramaten zaituzte.

Adibidez, Leirek esan du:

- Nik Miamira joan nahi dut.
- Eta nik Londresera -esan du Mikelek.

Xabierrek Australiara nahi du joan. Hori guztia ikusi eta gero, arraro egin zaie hirurei, ez dakite-eta non dauden. Baina, bat-batean, berriro ere soinu arraro bat entzun dute hirurek.

- Hau ez da lehen entzun dugun soinu bera? -esan du Mikelek.
- Ze soinu? -esan du Xabierrek.
- Autobusarena! – esan du Mikelek.

Bat-batean, berriro daude autobusean, ezer pasa ez balitz bezala. Leirek, Mikelek eta Xabierrek esan dute batera:

- Ze ondo, autobusean gaude berriro!

Eskolarako bidean, Leirek Xabierri galdetu dio:

- Zenbat gelditzen da eskolara joateko? Oso urduri nago.
- Ez da ezer gelditzen. Eskuinera biratu eta eskolan gaude -esan du Xabierrek.

Mikel eta Leire autobusetik jaitsi aurretik, galdera bat egin die:

- Gero zer ordutan joan behar dut zuen bila?
- 12:25ean -esan du Mikelek.
- Bale, gero arte Mikel eta Leire.

Agur esan diote biek, alai-alai. Eskolara sartu, eta bakoitza bere ilaretara joan dira. Ilaran jarrita daude, eta txirrinak jo du:

- Piiiiii.

Eskolan sartu dira orduan. Gela barruan daudela, Mikelek eta Leirek pasa zaiena kontatu dute, eta harrituta geratu dira denak.



■ C. maila • **1. saria**

BEÑAT USANDIZAGA NIEVE

.....

Mikel eta ipuinetako ezpata

Bazen behin Mikel izeneko mutiko bat Irlandan bizi zena 1783. urtean. Biho-tzekoa, abenturazalea eta alaia zen, lagunak laguna. Simon eta Lola ziren bere lagunak.

Egun batean, bihotz gabeak izeneko munstro txikiak atera ziren. Simon eta Lola bahitu egin zituzten, eta Mikel zulo misteriotso batera erori zen. Es-natu zenean, zera galdetu zuen:

- Non nago? Oso iluna dago hau.
- Ipuinen aretoan zaude -esan zuen ahots misteriotso batek-. Zure lagu-nak bahitu dituzte.
- Eta zu nor zara? -galdetu zuen Mikelek.
- Ez du garrantzirik. Hartu ipuinen ezpata hau, eta joan ate horretara -esan zuen ahots misteriotsoak.

Ate bat ireki zen, eta Mikel sartu egin zen:

- Orain non nago?-pentsatu zuen Mikelek.

Bat-batean, bihotz gabeak atera ziren, eta gizon batek Mikeli eskutik hartu eta babestu egin ziren:

- Nor zara zu? -galdetu zuen Mikelek.

- Ni Martin naiz, Frantziako erregea; hau da, Edurnezuriren senarra -esan zuen gizonak.

- Urte askotarako. Ni Mikel naiz, Irlandako ume bat -esan zuen Mikelek.

- Pozten naiz zu ezagutzeaz, Mikel, baina orain plan bat egin behar dugu -jarraitu zuen Martinek.

- Nik etsaien aurka egingo dut, eta zuk, bitartean, Edurnezuri berriro esnatzera joan behar duzu -proposatu zuen Mikelek.

Martinek eta Mikelek plana aurrera eraman zuten, baina Martin iristerako Edurnezuri ez zegoen bere lekuan.

Bidean, beste ate bat aurkitu zuen, baina itxita zegoen. Orduan Martin iritsi arte itxaron zuen:

- Ziurrenik, Edurnezuri ate horretatik eraman dute, baina itxita dagoenez, ez dugu berriro ere ikusiko -esan zuen, triste, Martinek.

Bat-batean, Mikelen ezpata argia egiten hasi zen, eta atea ireki zuen:

- Ze zortea! Atea ireki dugu! Eskerrik asko, Mikel.

- Baina, nik ez dut egin, ezpata izan da.

- Beno, horrek berdin dio. Goazen sartzera.

Biak sartu ziren, eta hiru etxetxo ikusi zituzten. Lastoz egindakoan sartu ziren, eta txerritxo bat ikusi zuten:

- Aiiiii! Ez jan, mesedez!! -esan zuen beldurrez txerritxoak.

- Lasai, ez zaitut jango -esan zuen Mikelek-. Ni Mikel naiz, eta hau Martin da.

- Pozten naiz ezagutzeaz. Uste nuen otsoa zinetela! -esan zuen txerritxoak.

Bat-batean, norbaitek atea jo zuen:

- Nor da? -esan zuen txerritxoak.

- Otsoa naiz, eta lagun batzuekin nator -esan zuen ahots zahar batek.

- Zeintzuk dira zure lagunak? -galdetu zuen Mikelek.

Orduan, leihotik begiratu zuen, eta bihotz gabeak zirela ohartu zen:

- Ez ireki atea -esan zion Mikelek txerritxoari.

- Ez badidazu irekitzen, etxea suntsituko dut -esan zuen otsoak.



Baina txerriak ez zion ireki, eta otsoak etxea suntsitu zuen. Hirurak beste etxe batera joan ziren, eta orain egurrezkoa zen. Ezer esan gabe, sartu egin ziren. Orduan beste txerritxo bat aurkitu zuten.

- Kaixo, hauek nire lagunak dira, baina hori ez da garrantzitsuena. Garrantzitsuena da otsoa datorrela. Ez ireki atera berari -esan zion anaiak.

Orduan otsoa iritsi, eta, ezer esan gabe, etxea suntsitu zuen. Laurak beste etxe batera joan ziren, eta orain adreiluzkoa zen:

- Kaixo, hauek nire lagunak dira, baina hori ez da garrantzitsua -esan zuen txerri txikienak.

- Garrantzitsuena da otsoa datorrela -esan zuen beste txerriak.

Otsoak ezin izan zuen etxea suntsitu, baina bihotz gabeek lagundu egin zioten, eta suntsitu egin zuten:

- Azkar, anaiok! Hartu zuen ezpatak, eta goazen munstro horiek garaitzera!

Ezer esan gabe, denek beraien aurka egin zuten.

Irabazi egin zuten, baina orain ate handi beltz eta zuri bat atera zen. Mikelek atea ireki zuen, eta gela zuri batean agertu ziren bostak. Bat-batean, txano beltza zuen pertsona bat etorri zen:

- Zuek izango zarete nire munstroei irabazi diozuen ezpatariak, ezta? -esan zuen.

- Bai, gu izan gara -esan zuen Mikelek.

- Eta bi emakume hauek ez dituzue ezagutzen? -jarraitu zuen.

Lola eta Edurnezuri agertu ziren bi kaoiletan, eta askatu egin zituzten:

- Eta zure laguna? -esan zuen.

Orduan, beste txanodun bat atera zen, eta Simon bera zen.

- Simon!! Nola zaude bere taldean? -esan zuen, harriturik, Mikelek.

- Orain nire taldean dago -esan zuen gizonak.

- Eta zu nor zara? -galdetu zion Mikelek.

- Ni David naiz, zure zoritxarra.

Orduan borrokatzen hasi ziren, Simon Mikelen aurka eta besteak bihotz gabeen aurka. Baina, bat-batean, David atera, eta Mikel bihotz gabe bihurtu zen. Lola hurbildu egin zen, negarrez. Lolaren negarrek Mikel bere onera ekarri zuten:

- Zu... hautatua zara!-esan zuen, harriturik, Davidek.

Orduan Mikelek bere laguntasunaren indarrarengatik David hil egin zuen, eta Simon bere onera ekarri zuen:

- Baina, zer gertatu da? -esan zuen Simonek.

- Oso istorio luzea da -esan zuen Mikelek.

Orduan denak bere ipuin eta lekuetara joan ziren. Simon, Lola eta Mikel zoriontsu bizi izan ziren, baina zein ote zen ahots misteriotso hori? Zergatik zen Mikel hautatua?

Ipuinak aldatu egin dira?

Ehiztari

12 urte



■ C. maila • **2. saria**

ALEXANDER SAN SEBASTIAN

.....

Ilargira

2000ko azaroaren 13a, osteguna

Gaur, ikastolan, zer izan nahi dudan pentsatzen hasi naiz. Nire lagun Unaxi galdetu diot berak zer izan nahi duen, eta erantzun dit ez dakiela. Arratsaldean, *Harrapatu bandera* izeneko filma ikustera goaz lagun batzuk eta ni, ea nolakoa den.

2000ko azaroaren 14a, ostirala

Atzoko filma oso polita izan zen. Ume baten istorioa kontatzen du. Bere aitona Ilargira joan nahi zuen, baina ez zuen lortu; bere aitak, ordea, bai. Familiaren pausoei jarraituz, astronauta bihurtu eta Ilargira joan zen. Hori aparte ikusi eta gero, hitz egiten aritu gara, eta astronauta izatea gustatuko litzaidakeela konturatu naiz.

2000ko azaroaren 15a, larunbata

Gaur nire urtebetetzea izan da, eta nire familiarekin eta lehengusuekin ospatu dut herriko elkartean. Opari asko jaso ditut, baina gehien gustatu zaidana, amak oparitu didan liburua da. *Astronauta txiki baten gida* izena du. Irakurtzen hasi naiz, eta asko gustatu zait.

2000ko azaroaren 16a, igandea

Goizean etxeko lanak egiten egon naiz etxean, eta gero jolastera atera naiz. Lagunekin jolastu eta gero, irakurtzen egon naiz, eta gero bazkaldu egin dut. Arratsaldean, pelikula bat ikusi eta gero, hau idazten aritu naiz, eta orain afaltzera noa.

2001eko urtarrilaren 7a, ostirala

Erregeak oso zintzo portatu dira. Gauza piloak oparitu didate: pijama bat, bainujantzi bat, aterki bat, zapatila batzuk eta teleskopio handi bat. Dena gustatu zait, eta dena erabili dut, teleskopioa izan ezik. Gogo handia daukat gaua iritsi eta izarrak ikusteko.

2001eko urtarrilaren 8a, larunbata

Atzo gauean izarrak eta planetak ikusten aritu nintzen. Oso ondo dago nire teleskopio berria, eta nire kolore gustukoena dauka: horia. Hemendik aurrera, egunero ikusiko ditut izarrak.

2001eko ekainaren 20a, asteartea

Gaur azkeneko eguna izan da ikastolan, eta orain oporretan nago. Aitak astronautei lotutako gauza asko oparitu dizkit. Nire gela astronauta posterrez beteta daut. Egunero ikusten ditut izarrak, eta liburu asko irakurtzen ditut beraiei buruz.

2009ko irailaren 7a, astelehena

Gaur, lehenengo klasea eduki dut unibertsitatean. Unax eta ni autobusez joan gara Tolosara. Hantxe ginen biok, ikastetxearen aurrean zutik. Sartu gara gelara, eta irakasleak izenak galdetu dizkigu. Geroago, astronomoei buruz hasi da hitz egiten, eta nola izan astronauta. Oso zaila zela konturatu gara, eta asko ikasi dut.

2009ko abenduaren 11, asteazkena

Ikasturtea ondo doa, eta gauza asko ikasten ari naiz. Laster, Gabonak izango dira, eta Erregeak datoz! Jada, lehenengo ebaluazioa bukatzeaz dago. Asko ikasten dut etxean egunero.

2010eko ekainaren 22a, larunbata

Ikasturtea bukatu da, eta biok dena gainditu dugu. Oso zaila izan da, baina orain erlaxatzea tokatzen da! Beste hiru urte eta bukatu egingo dugu unibertsitatea. NASA-n lana egitea gustatuko litzaidake, eta Ilargira joatea da nire ametsik handiena.

2013ko uztailaren 1a, astelehena

Bukatu dut unibertsitatea, eta lana bilatzea falta zait. Orain, behintzat, deskantsatu egin behar dut, eta udaz gozatu!! Irailean lana bilatzen saiatuko naiz.

2013ko urriaren 4a, asteazkena

NASAn lan egiten dut, eta Ameriketara bizi naiz. Asko kostatu zitzaidan familia eta dena han uztea eta hona bizitzera etortzea. Unax eta ni apartamentu batean bizi gara. Astronauta profesionalak gara.



2014ko otsailaren 13a, asteartea

Gaur nire bizitzako egunik garrantzitsuenetakoa izan da. NASAko nagusiak esan dit ea Ilargira joan naitekeen Estatu Batuetako bandera jartzeko. Momentu horretan, ezin sinetsirik nengoen, eta baiezkoa esan diot. Unaxengana joan naiz korrika batean kontatzera. Gogo handia dut irteteko.

2014ko otsailaren 21a, asteazkena

Bihar joango naiz Ilargira, eta oso urduri nago. Lankide bat eta biok joango gara, kohete handi batean. Goizeko hamarrek aldera joango naiz, eta egun batzuetan ezin izango dut idatzi. Gauzak prestatzera noa orain.

2014ko otsailaren 28a, asteazkena

Atzo etorri nintzen Ilargitik!! Sinestezina izan da abentura polit hau. Atera ginen Lurretik, eta, ordu batzuk igaro ondoren, unibertsoan geunden. Grabitate gabe geratu ginen nahiko azkar, eta, grabitatzeko hasi ondoren, azkenean, Ilargira iritsi ginen. Atera eta gero, bandera jarri Ilargian eta han pasa genituen egun batzuk. Atzo, berriz hona etorri ginen, eta kohetetik atera nintzenean, denak itxaroten ari ziren.

2014ko martxoaren 3a, igandea

Izugarrizko abentura izan da, eta nire ametsa egia bihurtu da. Ilargira joan naiz!! Egun hauetan, jende guztiak agurtu egiten dit, eta zoriondu ere egin naute. Oraindik ezin dut sinetsi.

2014ko abuztuaren 21a, larunbata

Orain familia daukat, eta Ameriketara bizi naiz. Nire emaztea hemengoa da, eta Sofia izena du. Nire seme-alabek berriz, Irati eta Taylor izena dute. Biek ingelesez eta euskaraz hitz egiten dute, eta bikiak dira. Oso pozik bizi naiz nire familiarekin.

Txunbel

12 urte



■ D. maila • **1. saria**

IRANTZU ZUBELDIA OLASAGASTI

.....

Ortzimugen arteko begirada

Jesarririk nengoen labar estu eta labainkor hartatik milia askotara, Eguzkia ortzimugen artean nola ezkutatzen zen ikus nezakeen. Olatuak batera eta bestera zebiltzan, haitz zorrotzen aurka talka eginez. Zerua sugarren kolo-reaz margoturiko sabai bihurtzen ari zen pixkanaka, zeruertzak sutan kiskaltzen ziren bitartean. Behe-lainoak urruneko paisaia hotz eta harritsuak inguratzen zituen, haran misteriotso haiek estaliz. Eguzkiaren azken izpiek su hartzen zuten artean, laster oroimenean galdurik geratuko zen egun hari so geratu nintzen. Haizeak geroz eta indartsuago egiten zuen ulu, itsasoko olatuak bortizki mugiaraziz.

Eguzki-izpi eta olatu isilen artean, egun hartan beragandik jaso ezin nitzakeen kontsolamenduzko hitz goxoak nituen gogoan; baita triste egon ohi nintzenean ematen zizkidan besarkada beroak ere.

Urteen poderioz zaharturik zituen bere bi esku zimurtuak, lan gogorren ondorioz kolpe eta urraduraz beteak. Azazkal gehienak belzturik eta desitxuraturik zituen jada. Oraindik faltan botatzen nituen ilunsentian kantatu ohi zizkidan kantu zaharrak, baita oheratzerakoan xuxurlatzen zizkidan gazetako istorio urrunak ere. Malkoak aurpegian behera erortzen zitzaizkidala sentitzen nuen, tanta bakoitzarekin horietako oroitzapen bat gogora eka-

rriz. Aurpegian kilimak egiten zizkidan haize freskoak laster lehortuko zizkidan malko haiek, ordea.

Oroitzapenetan murgildurik jarraitu nuen, aurrean neukan ikuspegia ederretsiz. Hankapean neukan harkaitzari tinko eusten nion bi eskuez, izugarria baitzen labarretik itsasoraino zegoen distantzia hura. Burua beherantz makurtzera ere ez nintzen ausartzen, olaturen batek itsaso bortitzera botako ninduen beldurrez. Arroka hartatik begiratuz, ez zitzaidan hain handia iruditzen bizitzaren eta heriotzaren arteko tartea. Urratsik txikiak, edozein bultzada arinek edota ustekabeko astindu batek, eseririk nengoen labarretik heriotzaren ateak gurutzatzeraino eraman nintzakeen.

Bertatik jauzi egin banu, aitonarekin elkartzeko aukera izango nukeen; inoiz gehiago ikusiko ez nuen irribarre jakintsu hura berriro ikusteko aukera. Baina ez nuen labarraren hegala hartatik salto egiteko ausardiarik. Behera begiratze hutsarekin ikarak bereganatzen zuen nire gorputz osoa, begiak ixtera behartuz. Oraindik banuen nire saminik sakonenak ahazten saiatzeko beta, aitona-
ren begirada jatorra berriro ikusteko denbora. Begiak itxi nituen, beherantz begiratzen ahalegindu ez nendin. Leku hark hotzikarak sorrarazten zizkidan, edozein unetan labarrean behera irristatuko nintzen beldur bainintzen.

Ez dakit zenbat denbora egon nintzen ikuspegi eder hari begira. Ohartu baino lehen, erlojuetako orratzek aurrerantz jo zuten, denborari atsedetik hartzen utzi barik. Berandu zen, oso berandu. Jadanik ez zegoen Eguzkiaren arrastorik, itsasoak egunari amaiera emanez bere txinparta guztiak itzali izan balitu bezala. Itsasoaren orro zakarrek haizearen ulu leunak estaltzen zituzten. Hodei gris eta beltzez ezkututzen ari zen pixkanaka ilunabarra, izarren argiari gau hura argitzea galaraziz. Belarriak lehertzearainoko trumoiak ezta berrunbatsuak lehenagoko presa areagotu zidan.

Arreta handiz labar ertzetik altxa, eta harkaitz estuan aurrerantz egin nuen. Olatuen zipritzinak aurpegiraino iristen zitzaizkidan, ikuspegia lausotuz. Haizeak ere gogor jotzen zuen, oreka galtzeko arriskua handituz. Ekaitza hastear zegoen susmoa neukan, zerua erabat ilundurik baitzegoen. Pausoa bizkortzen ahalegindu nintzen, ez bainuen erauntsi haren erdian harrapatu-
turik geratu nahi; aurrera edo atzera egiteko aukerarik gabe. Ezin nuen ia deus ere ikusi, haizeak eta olatuek ingurua aztertzea galarazten baitzidaten.

Ez zen batere erraza haitz irristakor haietan aurrera egitea; urrats oker batek galbidera eramango ninduen. Bat-batean, iluntasun hura argitu zuen argi itsugarri bat sumatu nuen nire ostean, burrunba hots ikaragarri batekin batera. Ezustekoak jota, atzerantz begiratu nuen, itsasoaren erdian erori berri zen tximista izugarri hari izuturik so egiteko. Baina ustekabeko hark erabat galdurik utzi ninduen.

Supituan, itsaslabarraren oineko harri baten aurka estropezu egin nuen. Labarrean behera labaindu nintzen, oinen azpiko harkaitz puska eder bat amildegian behera jausten zen bitartean. Labar ertzari bi eskuez oratzea lortu nuen, itsasertzean zintzilik geldituz. Oinen azpian lurrik ez edukitzeak babesgabe uzten ninduen, hegorik gabeko hegazti baten moduan. Nigandik metro askotara, olatu bortitzez beteriko itsaso haserrea ikus nezakeen, munstro gosetiaren ahoa bailitzan. Eskuak harkaitzean behera labaintzen zitzaizkidala senti nezakeen, nire bizitza uhin amaigabeetarantz herrestatuz.

Edozein unetan eror nintekeen amildegian behera. Izkin hartatik lehen baino are gertuago ikus nitzakeen herioaren ateak, itsasoak beraiek zeharkatzera gonbidatuko banindu bezala. Ahulegia sentitzen nintzen inguratzen ninduen ingurugiroaren aldean, eta estualdi hartatik bizirik ateratzea lortzeko nahia besterik ez nuen buruan. Laguntza bizkor iristea espero nuen, nahiz eta jakin ziurrenik ez zela inor ibiliko inguru haietan.

Olatuak nire inguruan hausten ziren, milioika zipriztinetan bilakatuz. Ez nuen denbora asko iraungo labarraren ertz hari eutsiz. Haizeak itsasorantz bultza egiten zidan, beso ikusezin bat ni bota nahian arituko balitz bezala. Oihuka hasi nintzen, laguntza eske. Baina alferrik. Inork ez zidala kasurik egin nahi zirudien, inori ez zitzaiola ardura nire egoera negargarria. Zeharo etsirik nengoen, nire indar guztiak arazo hartatik irteten saiatzeko erabiltzen ari bannintzen ere. Ekaitza baretzen hasia zela zirudien, itsasoak lehen bezain bortitz jarraitzen bazuen ere. Labarrean gora igotzen saiatu nintzen, baina egoera okertu besterik ez nuen egin; ia-ia arrokan irristatuz uretarantz erori bainintzen. Bertan irauten ahalegintzea erabaki nuen, ez baineukan beste aukerarik.

Dena bat-batean gertatu zen. Itsasoa lasaitzear zegoela zirudienean, sekulako olatua oraturik nengoen labarrerantz zetorrela ohartu nintzen. Erreakzionatzeko denborarik gabe ia, olatuak itsaslabarraren aurka talka egin zuen, ur

tantak harkaitzarekin hautsiz. Kolpeak oreka galarazi zidan, nire hamar hatzak harkaitzetik urrunaraziz. Hankak arrokan behera labaintzen zitzaizkidala sentitzen nuen, gorputz osoa beherantz jausiz. Aireak presio handiz egiten zidan indar, olatu zakar haietarantz botatzen ninduelarik. Itsasoaren hegalean, or-dura arte ikusi ez nituen haitz zorrotz eta mehatxagarriak begiztatu nituen. Beherantz jausten nintzen bitartean, aitonarekiko geroz eta gertuago nengoela sentitzen nuen, berak zeharkatu berri zituen ateak gurutzatzeko zorian. Nire azkena zen, ametsetan ere ez nuen lortuko bertatik bizirik irtetea. Muns-tro goseti haren sabelean murgilduko nintzen berehala.

Begiak itxi nituen bi eskuetako behatzak gurutzatuz. Harkaitz zorrotz haien punta geroz eta gertuago zegoela ikus nezakeen. Burua uretan murgiltzen zitzaidala sentitu nuen, ikuspegia erabat lausotuz. Ura erabat izozturik zegoen, eta, sartu orduko, min izugarria nabaritu nuen buruan. Igeri egiten saiatu nintzen besoak eta hankak lasterka mugituz, baina itsasoan gehiago urperatzea besterik ez nuen lortu. Etengabe ura irensten ari nintzen, nire burua oraindik gehiago itoz. Oihu egitera behartzen ninduten sastada mingarriak sentitzen nituen bizkarrean. Ura leku guztietatik sartzen zitzaidan, ezin nuen gehiago. Mina geroz eta jasangaitzagoa zen, gorputz guztirantz hedatzen ari baitzitzaidan.

Oinazearen eta ezinaren eraso etengabea sentitzen nuen nire barnean, bata zein bestea nire etsipenaren bila arituko balira bezala. Burua lehertzeaz nuen, eta hura guztia laster amaitzea besterik ez nuen espero. Bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka geldiezia zen hura, bakoitza beso batetik tira eginez arituko balitzait bezala. Ez nuen ia ezer ikusten, eta inguruko ikuspegia geroz eta ilunagoa bihurtzen ari zen. Milioika irudi eta oroitzapen nire ingurutik igarotzen ikus nitzakeen, nire bizitzako momentu guztiak film azkar batean bilakatu izan balira bezala. Pixkanaka irudi haiek nire albotik nola ihes egiten zuten ikusi nuen, olatuen artean desagertuz. Sentitu nuen azken gauza betazalak erabat ixten zitzaizkidala izan zen, amets galduren batean betiko harrapaturik utziz.

Olatuen zipriztinek esnatu ninduten amets bitxi hartatik. Ingurura so egin nuen, nire buruari non ote nengoen galdetuz. Gorputza odolez estalirik neukan, eta ez nintzen mugimendurik txikiena ere egiteko gauza. Soinean neramatzan arropak erabat zarpaildurik zeuden; zuloz eta urraduraz josirik.

Ilea erabat nahasirik nuen, eta aurpegia harea edo lokatzez zikindurik. Harkaitz zapal baten gainean nengoen etzanda, itsasoak bertaraino herrestan eraman izan banindu bezala. Itsasorantz begiratu nuen zeharo txunditurik. Ordu batzuk lehenago haserre eta oldarkor zegoen munstro goseti hura, zeruan batera eta bestera hegaz zebilen antxeta lasai bihurtu zela zirudien.

Ezin nuen sinetsi bizirik nengoenik. Nire ezkerreko esku odolduaz ma-sailetako bati atximur egin nion, oraindik ametsetan ari ote nintzen egiaz-tatzeko. Baina atximurkada hark aurpegi osoa mindurik uztea besterik ez zuen lortu. Mina sentitzen jarrai ote zitekeen heriotza ezagutu ondoren ere? Edo olatu eta haitz zorrotz haietatik bizirik irtetea lortu ote nuen benetan? Eta bizirik banengoen, nola lortu ote nuen honenbeste arriskuri bizirautea? Eta, zergatik? Zenbat denbora ote neraman harkaitz hartan etzanik? Burua nahasten zidaten galdera zaparrada hartatik libratu nahi nuen, zer gertatu zen ahortu eta handik betiko alde egin. Ez nintzen berriro leku izugarri har-tara bueltatuko. Zutik jartzen ahalegindu nintzen, baina ez nuen lortu mus-kulurik txikiena ere mugitzerik. Erabat etsirik, itxarotea erabaki nuen; burua jaten zidaten erantzunik gabeko milioika galderek inguratzen nindutelarik.

Denbora astiro eta bakarti igaro zen, nire burua mundu osoan bizirik zegoen pertsona bakarra nintzela irudikatzerara behartuz. Azkenean, Eguzkia ortzimugen artean desagertu zen. Ilunabarra heltzear zegoen. Zeruan ez zen izarrik ageri oraindik, baina laster ilunduko zuen. Ez nituen oinak sentitu ere egiten, eta lo nengoen bitartean borreroak aizkora airean altxa eta hauek erroetatik moztu zizkidan irudipen bitxia nuen. Besoak harkaitzaren aurka bermatuz, burua lurre-tik altxatzen saiatu nintzen, ukondoekin indar eginez. Kontu handiz, arroka- ren gainean esertzea lortu nuen, hankak elkarren artean gurutzatuz.

Harkaitz gainean jesarri- rik, ikuspegia erabat desberdina iruditu zit- zaidan. Inguruan arroka gehiago zeuden. Ezkerretara begiratzerakoan, haitzulo sa- kon baten oinean nengoela ohartu nintzen. Kobaren sarrera handia eta ha- rritsua zen, baina, leizean aurrerantz eginez gero, bidea are estuagoa bihur- tuko zen seguruenik. Itxaropen izpi batzuek bereganatu zituzten nire azken kemenak, bizirik irauteko itxaropenak handiagotuz.

Zorutik jaikitzen saiatu nintzen, nire gorputzaren pisua bi hanken artean eutsiz. Oinak harkaitzaren gainean jarri bezain laster, sekulako oinazea sen-

titu nuen gorputz osoan zehar. Urrats bat ematen saiatu nintzen, lurrera ez erortzen saiatuz. Aurrerantz jarraitu nuen, inguratzen ninduen min latz hari entzungor eginez. Haitzulo barrura sartzea erabaki nuen, barruan handik ihes egiteko konponbidea aurkituko nuelakoan.

Leize-zuloaren barnean hotz ikaragarria egiten zuen, eta laster damutu nintzen arropa gehiagorik soinean ez izanaz. Kanpoko argitasunagatik izango ez balitz, ez litzateke ezer ere ikusiko han barnean. Nik pentsatu bezala, haitzuloaren sarrera handia eta zabala izan arren, koban aurrera egin ahala bidea geroz eta estuagoa bilakatzen zen. Oinazeak eraginik, ibiltzeari utzi eta kobako harkaitz baten gainean eseri nintzen. Kobako sabairantz begiratu nuen, burua gorantz begira jarritz. Ehunka estalaktita ikus zitezkeen sabaitik zintzilik; batzuk txikiak eta zorrotzak, eta beste batzuk, berriz, handiagoak eta kamutsak. Nire alboan hainbat estalagmita zeudela ere ohartu nintzen, baita denborarekin zutabeak osatuz ur tantaz tanta elkartzeraino iritsi ziren estalaktita eta estalagmitak ere.

Halako batean, nire aurrealdean elkarren ondoan zutik zeuden bi harri zapal begiztatu nituen. Orain arte han egon ez zirenaren irudipen bitxia nuen, baina segur aski ez nion haitzuloari behar bezala erreparatuko. Bi harlauzek forma berdina izan arren, bietako bat bestea baino txikiagoa zela konturatu nintzen. Bi harri zabalei arretaz begiratu ondoren, letra batzuk zeudela bertan idatzirik ohartu nintzen. Eseririk nengoen harkaitzetik zer jartzen zuen irakurtzen ahalegindu banintzen ere, ez nuen lortu bertako hizki haiek desberdintzerik. Bertatik altxa eta harlauzetarantz inguratu nintzen, haue-tan idatzirik zegoena irakurtzeko asmoz. Gerturatu bezain laster, harlauza horiek harri soilak ez zirela konturatu nintzen.

Ez nuen inoiz pentsatu leize-zuloetan jendea ehorzten zutenik, ez garai haietan behintzat. Ez zitzaidan batere atsegina iruditzen gorpuz beteriko haitzulo batean egotea, are eta gutxiago argitasun urri harekin. Hala ere, kontu handiz burua makurtu eta hilarririk txikienean jartzen zuena irakurtzen saiatu nintzen. Iluntasun hartan erabat zaila bazen ere idazkera bitxiko letra haiek irakurtzea, irakurri berri nuenak bihotza geldiarazi zidan ia.

Harlauzaren goialdean nire izen-abizenak zeuden idatzirik, azpian nire jaiotze eta heriotza datak jarraiturik: *"Jack Norrison Gates, 1983-06-05 / 1998-08-21"*. Oke-

rrren batek egon behar zuen bertan, nik bizirik jarraitzen bainuen. Edo hori uste nuen behintzat. Agian zuzen zegoen hilarri hura, eta iraganeko Jacken espiritu hutsal bat besterik ez nintzen. Bazitekeen tunel ilun eta luze hura zeharkatu ondoren herioaren ateetara ailegatzea. Nire hilobiaren alboko hilarrian zer jartzen zuen begiratzeko makurtu nintzenean, tristuraren eta itxaropenaren arteko zer-bait nagusitu zen nire aurpegian. Aitonaren hilobia zen hura.

Malkoak begietan, bi hilobiegi begira geratu nintzen. Pasabide ilun horiek zeharkatu ote zituen aitona benetan? Koban aurrera egin ote zuen, amaieran zer zegoen aurkituz? Bizkor ibiliz gero, bazitekeen bera berriro ere ikustea. Baina nola, ordea? Izan ere, ez nekien norantz jo behar nuen, ezta bidean zer topatuko ote nuen ere. Aitonaren hilobia lastandu nuen eskuin eskuaz, laster elkartuko ginela hitz emanez. Baina hilarrirantz begiratzean, bi harlauzak jadanik han ez zeudela konturatu nintzen. Haitzulo osoa aztertu nuen begiradaz, baina ez zegoen bertan egon zirenen arrastorik.

Leize-zuloaren sarrerarantz hurbildu nintzen, zer egin jakin barik. Tupustean, zerbaiten burrunba hotsa entzun nuen. Gorantz begiratu nuenean, kobazulo barneko harkaitzak arrapaladan behearantz zetozela ikusi nuen, zehazki nireganantz. Orduan bai ez neukala ihesbiderik. Ahulegi nengoen lasterka hasteko, bizkor zerbait egiten ez banuen harkaitzen azpian zanpaturik geratuko nintzen. Lurrerantz erortzen nintzela sentitu nuen.

Begiak zabaltzerakoan, ilunsentiari begira orduak igaro nituen labar estuan etzanda nengoela ohartu nintzen. Kobako sabai ilun eta harritsua izarrez beteriko zeru eder bihurtua zen. Gertaturiko abentura lazgarri haiek guztiak nire imajinazioaren iturri besterik ez ziren izan. Olatuen hots eten-gabea entzun nezakeen itsas labar haren hegaletik. Oso berandu zen jada. Auskalo zenbat denbora eman nuen haitz hartan lotan. Amak sekulako errieta botako zidan ez banintzen berehala etxera bueltatzen. Hala ere, leku berean jesarririk jarraitu nuen, gau hartako izar haien argia miresten.

Izan ere, nahiz eta bera jadanik nirekin ez egon, bere argiak beti jarraituko du nire bihotza argituz; aspaldian desagerturiko izarra bailitzan. Batzuetan, milioika miliatan zehar iristen zaigun suzko harkaitzen argia bezain indartsua izatera irits baitaitezke pertsonon sentimenduak, inoiz gehiago ikusiko ez ditugun izakiengan.



■ D. maila • **2. saria**

SARA IRIARTE LASA

.....

Maitasunaren presoak

Gaueko 00:00ak dira. Han dago nire bizilagun eder hori leihotik begira. Bere logelako argia piztuta dago.

Zein izen ote du? Ez al da ohartu bere senarra beste neska batzuekin aterra dela? Leihotik ikusten dut nola doan alde bakoitzean bi neska dituela. Baina, nora ote doaz? Eta, ez al da bere emaztea ohartu? Bere emazteak 20 urte inguru izango ditu, eta senarrak 45 urte. Zer egiten du horrelako emakume eder batek horrelako gizon batekin? Diru-kontua izango ote da?

Neska hori ez dut inoiz kaletik ikusi. Beti etxe barruan sartuta egoten da, preso egongo balitz bezala. Askotan bere oihuak entzuten ditut nire logelatik, eta, hurrengo egunean, ubeldu handi bat azaltzen zaio bi begietan.

Min egiten dit neska hori horrela ikusteak, baina ez naiz ausartzen bere senarrari ezer esaten. Nahi baduzu, esadazu koldarra naizela, baina zu ere ez zinen ausartuko ezer egitera. Ez dakit zergatik, baina gizon boteretsua dirudi.

Bat-batean, euria hasi du, eta baita bere begietatik ere. Konturatu egin da berari begira ari naizela, eta barrura sartu da. Ni nire pentsamenduetan murgildu naiz: emango nukeena bere gorputz eder hori probatzeko, bere ezpain horiek nire ezpainekin tapatzeko, emakume horrek benetako plazera

ezagutzeko, bere irribarrea lehenengo aldiz ikusteko, egunsenti bat ikusiko banu bezala...

Une horretan, nire errealitatera itzuli naiz. Bere logelako argia itzalita dago oraingoan. Non ote dago? Beti egoten da bere logelan, eta oso berandu oheratzen da, 03:30 aldera edo.

Halako batean, nire etxeko tinbre hotsa entzun dut. Nor izango da ordu hauetan? Bi aldiz pentsatu gabe, atea ireki dut, eta, nire harridurarako, han dago bera. Izen anonimoko emakume hura. Bainu-bata zuri bat dauka soinean... zer ezkutatuko ote du azpian?

Ezer esan gabe, nire etxera sartu da, eta musukatzen hasi zait. Lepoa, ezpainak... Nire galtzen botoia askatzen hasi, eta ni bere bainu-bata askatzen hasi naiz. Logela non dagoen erakutsi diot musurik musu, eta nire ohe gainean etzan da. Ezer gehiagorik gabe, biluzik jarri nau, eta nire ohean sartu da, baina ez da ezer gehiago gertatu. Nire bularrean jarri du bere burua, eta lo geratu da.

Goiz eder hartako eguzki-izpi horiek esnatu naute. Une perfektua da. Bere ilea laztantzeko mugitu naizenean, bera ere esnatu egin da, eta, egoea ikusi orduko, negarrez janzten hasi da.

- Akabatu egingo nau! Akabatu egingo nau! –errepikatzen dit behin eta berriz bere ahots goxo eta, aldi berean, beldurtiarekin.

Orduan ohartu naiz ez dela hemengoa. Arabiar azentu garbia du.

Etiket atera da korrika. Nik ez dakit zer egin. Bat-batean, bere etxeko ate hotsa entzun dut, eta builak. Buila asko! Ez naiz gai gizonak esaten duena ulertzeko... Baina, itxaron pixka bat... gizona ez dago bakarrik. Gizon gehiago daude bere logelan. Nire leihoko errezela itxi dut. Ez naiz hura ikusteko gai. Zer egingo ote zuen emakume gaixo horrek horrelako egoera bizitzeko?

Egunak pasa dira, 14 egun zehazki, nire etxeko tinbrea ez duela berriz ere inork jo, eta gutxiago berak. Bai... egunak zenbatzen aritu naiz bitarte honetan, eta nire etxera etorri ez dela urteak pasa direla dirudi. Gaueko 21:00ak dira, baina ez dakit zer egin. Beraz, nire ezkaratzera jaitsi naiz, gitarra eskuetan dudala. Nire bizilagunaren senarra pasa da, berriz ere albo bakoitzean neska bat duela.

Beste behin ere, nire pentsamenduetan murgildu naiz, ohikoa den moduan. Egia esan, nire bizitzan ez dut inor. Ez dut gurasoen berri. 18 urterekin etxetik joan nintzen, eta jada 23 urte ditut. Nire bizitza eramaten jakin dut, inoren laguntzarik gabe. Metroan, nire gitarrarekin aritzen naiz eguneroko, txanpon batzuen truke. Ume bat geratzen zaidanean, nik mingaina ateratzen diot. Eguneroko errutina bihurtu da. Irribarre zintzo batek eguna pozten dit. Ez dago irribarre bat ezpainetan duen umea ikustea baino gauza ederragorik eta pozgarriagorik. Esan dezaket nire familia eta nire lagun bakarra nire gitarra maitea dela. Nire pentsamenduak alde batera utzi ondoren, akorde batzuk jotzen hasi naiz, eta, horrekin batera, elkarren artean logika handirik ez duten hitzak elkartuz, abesten hasi naiz.

Istant horretan, takoi hotsak entzun ditut... bainila usain goxoa etorri zait. Alboetara begiratu dut, eta han dago gauetan amesten dudana neska eder hura. Ubeldu handi bat du begian eta kokotsean. Begietara begiratu dit, eta inspirazioa etorri zait. Logikarik ez zuten hitz horiek guztiek logika hartu dute, eta automatikoki neska eder horri zuzendu dizkiot hitzak. Hitz guzti-guztiak bihotzaren barrenetik atera zaizkit. Aitaren batean, gitarra jotzeari utzi diot. Ez dakit zergatik, ahotsa puskatu egin zait, eta abesteari utzi diot. Neskak niri begira jarraitzen du. Eskuak hartu dizkiot, eta bere eskuetako milimetro bakoitza laztandu diot.

Berak niri begira jarraitzen du. Begi berdeak ditu, udaberriko belar freskoaren antzekoak. Orduan, bere aurpegiko milimetro bakoitza maite dudanla ohartu naiz. Bere aurpegiko milimetro bakoitza niretzat nahi dut. Burua llargian galtzeko gogoia sentitu dugu. Musuka hasi gara. Etxera eraman nahi dut, eta orain dela 14 egun gertatutako istorioaren jarraipena egin.

Altxa egin naiz bere gerria besarkatuz nire esku hotzekin, eta bera ere altxa egin da... baina geldirik geratu da. Nabaria da ez duela istorioarekin jarraitu nahi, edo, hobeto esanda, ezin duela. Izututa dago momentu honetan. Bere ubelduak laztandu dizkiot, eta berak begiak itxi ditu, bere masailetik malko bat erortzen den bitartean.

- Erakutsi zure zauriak, eta horrela sendatuko dira – esan diot.

Begira geratu zait. Ez du ezer esan, eta, ni bera izango banintz ere, ez nuke jakingo zer esan. Masailean musu bat eman dit, esanez:

- Jon, barka iezadazu, baina ezin didazu lagundu.

Eta hitz horiek esaten bukatu ondoren, alde egin du. Nola jakin ote du nire izena?

Ettxera sartu eta nire ohean etzan naiz, baina ezin ditut begiak itxi, gertatutakoaz pentsatzen jarri naizelako. Azkenean, begiak ixteko plazera izan dut, eta nire amets goxoen barnean sartu naiz, eguneko azken 5 orduak benetan gozatuz.

Azkenean, esnatu naiz. Ez dut egindako ametsa gogoratzen. Agian, oraindik ez naiz esnatu, eta amets batean murgilduta nago... Ez, tamalez, hau errealitatea da. Errezelak ireki ditut, eta han dago. Ikusten denez, bere senarra ez da etorri etxera, bestela bere oihuek esnatuko ninduten. Neskari begira nagoela, gitarra hartu dut, eta balkoira atera naiz. Orduantxe, nire bizitzan jo ditudan akorde ederrenak atera zaizkit, eta baita hitz ederrenak ere. Horrela diote:

Maite izan genuen gauean,
Ahal zen arte iraun zuenean,
Gure sustraietatik atera genuen azala,
Gure musuetan galduz iparra.
Mila abesti pasa ditut
Zure irribarrea,
Zure begiak,
Zure ahoa
Eta zure eskuen bila,
Baina zin dagizut
Abesti horiek baino ederragoa zarela.
Agur baten oihartzuna entzuten nuen
Zure ahotik ateratzen
Eta, Maite zaitut bat,
Nire bihotz sakonetik irteten.

Baina, bat-batean, bera ere abesten hasi da. Nire harridurarako, aingeruak bezain ondo abesten du!

Mila esker inork begiratu ez nauen moduan begiratzeagatik
eta tristura niretzat aukera bat egiteagatik.
Baliteke gauzak ongi ateratzea,
nahiz eta agian beldurak gainditu ahal izango digun.
Nire malko bakoitza,
nire koltxoi azpian gordetzen dut.
Abesti triste bat besterik ez naiz
inork inoiz entzun ez duen hura naiz.
Baina, bizitzak izateko izan behar duena
nahiz eta ni galtzen atera.

Orduan, inoiz sentitu ez dudan sentsazioa bizi izan dut. Begiak bustiak ditut, eta, ondoren, sentsazio busti hori nire masailetara pasa da. Nire aurrean dagoen aingeruak irribarre bat eskaini dit. Itsututa geratu naiz. Egunaren bigarren egunsentia ikusi dut. Orain bai, orain ikus dezaket bizitzak duen edertasun hori.

- Abir izena dut.

- Nik...

- Badakit zein den zure izena.

- Nola dakizu?

- Goizero joaten naiz zure atzetik metro aldera, mozorrotuta. Ume bat goizero begira jartzen zaizu, eta zuk mingaina ateratzen diozu. Ni naiz bere zaintzailea. Eta lurrean jartzen duzu kartel bat zure izenarekin. Jon Zumelaga.

- Eta zergatik mozorrotzen zara?

- Nire senarrak pentsatzen du etxean egoten naizela. Eta mutilek ahoa ixten ez dakizuenetz, maniki bat jartzen dut ileorde batekin, zuk nire senarrari ez ezer esateko.

- Nik ez nioke zu bezalako emakume bati horrelakorik egingo.

- Hori ez dakit. Oraindik ezezagun bat zara niretzat.

Eta ezer gehiago esan gabe, etxe barrura sartu da. Nik leihoari begira jarraitzen dut, bere aurpegi eder horren zatiren bat ikusteko esperantzarekin, baina ez. Ez dut ikusi.

Gaua iritsi da. Abirren senarra egunero bezala atera egin da betiko neskekin. Orain han dago Abir, bere egongelan, eta ni hemen ergel bat bezala berari begira. Baina, itxaron... ohetik altxa da, eta, bai, leihora atera da, eta behingoz bere aurpegia ikusi dut. Uste dut bere aurpegia ikustea nire droga izatea bihurtu dela.

- Zergatik begiratzen didazu horrela eguneko 24 orduetan? –esan dit.

- Ez al zara ohartzen? –atera zait nire aho usteletik. Zergatik atera ote zaizkit hitz horiek?

- Ohartu, zertaz?

- Zure senarra gauero ateratzen da bi neskarekin. Eta goizean etortzen da. Zuri, bitartean, ez dizu uzten eguneko 24 orduetan ateratzen –berriz atera zaizkit hitz ergel horiek nire ahotik. Isilik geratzen ikasi beharko nuke, eta hori ia urteko egun guztiak isilik pasatzen ditudala.

- Eta zer nahi duzu nik egitea?

Hitz horiek benetan harritu egin naute.

- Beste guztiek egiten dutena.

- Beste guztiek egiten dutena? Zer dakit nik beste guztiek zer egiten duten? Ume bat zaintzen dut. Ez dut ezer gehiago egiten. Ez dakit kaleko pertsonak zer egiten duten egoera hauetan, eta ez dut uste 6 urteko ume batek erakutsiko didanik zer egin.

- Zergatik begiratzen diozu bizitzari helmuga bakarra edukiko balu bezala, eta helmuga hori gizon baten preso bat izatea izango balitz bezala?

- Ez dakizu nire bizitzaz ezer.

- Ba... konta iezadazu.

- Ez zaitut ezagutzen.

- Ba ezagut dezagun elkar! Konta iezadazu zure bizitza. Goizeko 1:00ak arte geratu behar banaiz, geratuko naiz.

- Ea ba... Ez dakit ohartu zaren nire azentu bereziarengatik, baina arabiarra naiz. Nire familia diruduna zen, eta, beraien etorkizuna hobeia izateko, dirudun familia bateko seme batekin ni ezkontzea erabaki zuten. Berak 45 urte ditu, eta nik, berriz, 18. Bai, ezberdintasun handia dago, badakit, baina han gauza normala da. Bere gurasoak dirurik gabe geratu ziren, nire senarra lanik gabe geratu baitzen, eta orduan nire aitak ni nire senarrarengandik banatzea nahi zuen. Bere gurasoek ez zuten hori nahi, eta, beraz, nire aita hil zuen nire senarraren aitak. Nire ama, geroago, pozoituta hil zuten, eta nire ahizpak bere buruaz beste egin zuen, gertatutakoaren ondorioz. Beraz, bakarrik geratu nintzen. Ondoren, nire senarra eta biok hona etorri ginen lan bila, baina ez zuen aurkitu. Orain, nire senarrak esaten didana egiten dut, zeren ez dut buruan tiro batek jota hiltzerik nahi, nahiz eta nire bihotzak nahiko bala eduki hainbeste sufrimenduren ondorioz.

- Eta nola mantentzen duzue zuen etxea, ez baduzue dirurik?

- Horregatik ateratzen naiz egunero ume hori zaintzera... dirua irabazteko.

- Eta zure senarrak diru hori nondik ateratzen duzuela pentsatzen du?

- Uste du bankuarekin akordio bat dugula.

Bizimodu tristea da berea. Baina istorio guztian ez du malko bakar bat ere isuri. Ezer gehiago esan gabe, barrura sartu da, eta hori asko eskertu diot, zeren ez dakit zer esan. Ohera sartu naiz besterik gabe, bihar goizeko 3:00etan esnatu behar naizelako, 4:00etako trena hartu behar dudalako.

Iratzargailuak esnatu egin nau 5 ordu eta gero. Gitarra hartu, eta tren geltoki aldera joan naiz. Nire harridurarako tren geltokiko eserleku batean dago Abir. Laster, lauretako trena pasako da, eta bera geldi-geldirik dago. Oraindik eguna iluna da, eta momentua ere tristeagoa da. Pentsakor ikusten da. Bere pentsamenduak irakurtzen ditut. Bere amaren eskuez, bere ahizparen besarkadez eta bere aita bihotzean jo zuen azken balaz oroitzen ari da. Bitartean, tren karrilera bota edo ez bota pentsatzen ari da. Ez, ez da botako. Hori pentsatzea bere bizitzako errutina bilakatu da. Trena iritsi da, eta bertan sartu da. Begira harrapatu nau, baina ez dit irribarrerik egin. 10 pauso aurrera egin, eta trenean sartu da. Ni beste bagoi batera sartu naiz, ezin dut neska hori horrela ikusi!

Arratsaldeko zazpiak dira, eta, negua denez, jada eguna iluna da. Zalaparta asko entzuten dut, baina, bat-batean, ate hots batez zalaparta hori isildu egin da. Ondoren, nire tinbre hotsa entzun dut. Han dago Abir. Irribarre bat du ahoan. Ni harrituta nago, baina ez zaizkit hitzak irteten.

- Goazen.

- Nora?

- Ez dakit.

- Zer esan nahi duzu horrekin?

- Azkar! Hemen itxarongo dizut.

- Baina, zer egin behar dut?

- Maleta prestatu eta dirua hartu. Ez al zenidan esan zerbait egin behar nuela? Ba, goazen zerbait egitera.

- Hau erokeria da.

- Libre izan nahi dut, Jon. Baina ez dakit zer den libre izatea. Horregatik nahi dut zu nirekin etortzea, bizitzan dudan pertsona bakarra zarelako. Eta, gainera, hasi behar genuen hura bukatu behar dugu.

Bi aldiz pentsatu gabe, tira, egia esan... ezer ere pentsatu gabe, barrura sartu naiz, eta etxean dudana guztia hartu dut. Erotuta nago. Bere senarrak harrapatuz gero, ez gara hemendik bizirik aterako. Baina, tira, maitasunarengatik edozer egiten dudala ikasi dut. Oraingo honetan, maitasunarengatik nire bizitza jokoan jartzen ari naiz.

Azkenean atera naiz, eta, korrika, etxe ilun honetatik alde egin dugu. Taxi bat hartu, eta tren geltokira joan gara. Istean, Abir betiko bankuan eseri da iluntasunean, eta berriz ere betiko pentsamenduetan murgildu da, begiak itxita dituela. Ondoren, tren karrilera begiratu du.

- Ez duzu egingo. Beti gauza bera pentsatzen duzu, eta ez duzu inoiz egingo. Gaur ere ez duzu egingo.

- Egin, zer?

- Zure burua tren karrilera bota. Pentsamendu ilun hori zure eguneroko errutina bilakatu da.

- Eta, zuk hori nola dakizu?

- Zure begi berde horiek zuk pentsatzen duzuna baino gehiago esaten di-date. Zu egunero ispiluan ikusten zarena eta nik egunero begietara begiratzen zaitudanean ikusten dudana ez da gauza bera: sufrimendu batean estali zaituzte, baina ez duzu hori ikusi nahi, zuretzat zerbait normala delako. Baina ez, ez da normala, horrela ikusi nahi duzu. Hori da arazoa. Ez duzu zure sufrimendua sufritu nahi, ez diozu jendeari zure sufrimendua transmititu nahi. Horregatik duzu barnea hain betea, eta horregatik zara kanpotik hain isila. Baina benetan maite zaituen pertsona batek benetan daki zer sentitzen duzun, eta alferrik da niri ezetz esatea. Ez nauzu lasaituko, horregatik egiten ari naiz erokeria hauek guztiak. Zure barneko sufrimendu hori guztiz ateratzeko eta normalak diren gauzak zure errutinaren kide izateko. Nik neuk zure errutinaren kide izan nahi dut, Abir!

- Benetan, Jon, egunez egun gero eta gehiago harritzen nauzu –esan du, barrez.

- Hori nahi dut, Abir. Zure bizitzaren bigarren zatia irribarre batez hastea.

Hasi gara billeteak hartzen, baina ez dakigu nora joan. Edozein helmugari egin diot klik, eta, irakurtzean, toki perfektua. Gabonei hasiera emateko leku zoragarria, goxoa udan eta kosta ederrarekin. Iritsi da trena.

Abir urduri dago, baina ez da arraroa. Ni ere urduri nago. Trena martxan jarri da, eta Abir leihotik begira dago. Hotza egiten duen tren batean gaude, eta Abirri malko bat erori zaio begi batetik. Nik goxo-goxo besarkatu dut, eta dena ondo aterako dela xuxurlatu diot belarrira. Berak, irribarre batez, malkoa lehortu du. Ondoren, musu goxo eta ezti bat eman dit ezpainen ertzean, eta gustura geratu gara.

Iritsi gara. Ondoren, taxi bat hartu dugu, eta taxiko leihotik begira, lehenengo kartela ikusi dugu: Malaga. Abirri irribarre goxo bat atera zaio, eta gustura sentitu naiz. Hotel bat hartu dugu, ezer berezirik ez duten horietakoa. Gauzak bertan utzi, eta maletak desegiten hasi gara. Abirrek argazki batzuk atera ditu bere maletatik.

- Hemen nire senarra eta ni zoriontsuak ginen. Arabian geunden. Nire gurasoak bizirik zeuden. Bizitza sinpleki perfektua zen.

- Abir, zer inporta du dena bukatu baldin bada eta oraindik gelditzen dena hobe bada? Ez bizitu oroitzapenetan, maitea!

- Eta, nola?

Orduan, biok kalera atera gara, eta Malagako hondartzara joan gara argazki horiekin. Itsasertzean altxatuta geratu gara, isilik.

- Eta orain, zer? –galdetu dit, ahots eztiz.

Nik argazkiak hartu ditut, eta nire larruzko jakatik metxero bat atera dut. Orduan, metxeroa hartzeko eta pizteko eskatu diot, eta berak halaxe egin du. Argazki guztiak erretzen ikusi ditugu, eta argazkiaren zati batzuk haizeak eraman ditu, beste batzuk hondarretan geratu diren bitartean.

- Zure oroitzapen guztiak erre dituzu. Zerbait gehiago behar duzu hau guztia ahazteko? –esan diot goxo-goxo.

Berak orduan lurrean eta bere eskuetan geratu diren argazki errearen zatiak hartu eta itsasora bota ditu. Ondoren, musu eman dit ezpainen erdian, eta, azkenean, momentu horretan bizirik jarraitzeko behar ditudan hitzak esan dizkit.

- Batzuetan pentsatzen nuen ez nintzela inoiz infernu honetatik aterako. Ispiluaren aurrean aurkitu ezinean ibiltzen nintzen. Oroitzapenetan galdu nintzen, oraina bizirik sentitu gabe. Ilusio galduak nituen, eta irribarre behartuak erakusten nituen. Porrotaren garaikidea naiz. Lehen besarkatzen ninduen behartutako maitasun horrek, orain ez du erretzen. Zuk erakutsi didazu mundu honetan norbait izaten. Nire iparra izango zara aurrerantzean. Zuri esker, orain, ni hemen nago, eta ez norabide garbirik ez duen geltokian. Goazen denbora lapurtzera denborari. Hankak geldituko dizkiot kontrolatzen gaituen denborari. Ez dago zure zaporea nire zainetan sentitzea baino gauza hobeagorik. Ederra izango da orain etorriko dena. Lehen bi ginenak orain bat gara. Ez dakit nola azaldu zer garen: **Maitasunaren presoak gara.** Hori da garena.

Rul

14 urte



■ E. maila • **1. saria**

OIHANA BERAZA ALDALUR

.....

27 Ordu (Haiku, 39 urte)

Esku politak ditu, behatz luze eta leunekin, bere urduritasunaren salatari. Ezin du geldirik eduki behatz tartean daraman termometroa. Irakasle batzuek ere gauza bera egiten dugu, guraso talde baten aurrean hitz egin behar dugunean; boligrafo bat hartzen dugu, horrek barruko egonezina arinduko balu bezala. Hogeita hiru urte izango ditu, gehienez, erizain eskolatik atera berria; ongi etorria lan mundu basati honetara.

Alboan duen medikuak zerbait galdetu dit. Ez diot ongi entzun edo ez diot entzun nahi. Atzo ere sartu zen logela honetara. Nire logelara? Ume txiki batzuek pediatraren mantal zuria ikusi bezain laster sentitzen dutena bizi nuen nik ere: beldurra, izua, ikara. Zergatik nago hemen?

Paretan zintzilik dagoen pantaila beltzari begiratzen diot. "Ele eta ge" Miekelek esango lukeen bezala. Iaz ikasi zuen alfabetoa, Jonekin batera, nahiz eta bi urte gazteagoa izan. Ospitale honetan jaio ziren biak. Bost urte igaro dira jada lehenengo erditzetik. Zenbat negar, zenbat irribarre. Zenbat beldur. Itoko ote den beldurra, edo gaixotzea, gehiegi gizentzea, argaltzea edo txikia geratzea. Arriskuz inguratutako mundua, baita etxebizitza bera ere; kontuz ibili sukaldean, bainugelan, logelan, terrazan. Beti kontuz. Ospitaletik lo atera ohi gara amatxoren besoetan, eta berdin ateratzen gara, beso goxo

horiek egurrezko kaxa batek ordezkatzuz. Mediku batek esaten du noiz jaio-ko garen, baina ez noiz joango garen. Eta nola? Norekin? Nora?

Maiz sartzen dira medikuak ni ikustera; zoo bateko animalia exotikoa izango banintz bezala sentitzen naiz. Eta ni ere, animalia arriskutsuen gisa, lotuta nago kaiola honetan. Ezin naiz mugitu.

Gaur erizain berri bat etorri da ni garbitzera. Nire ikasle baten antza du. Nikaragutatik etorri zen gure eskolara orain dela bi urte. Ondo gogoratzen dut bere lehenengo eguna. Eskutik heldu eta bere ikaskideen aurrean aurkeztu nuenean, “Nire izena Tatiana da” izan ziren bere lehenengo hitzak euskaraz. Eskolako bidean ikasi zituela esan zidan, auzoko lagun batek paper batean idatzi ostean. Neska azkarra eta ikasle bikaina da Tatiana.

Askotan geratzen naiz berarekin atsedendian, euskarako etxeko lanekin laguntzen.

Nire mugikorra non dagoen galdetu diot, baina ez dit erantzun; ez dit begiratu nahi, urduri sumatzen dut. Nire semeak nola eta non dauden jakin behar dudala esan diot, hitz bakoitza aurrekoa baino tonu altuago batean ahoskatuz. Erantzunak behar ditut. Gogoratzen dudak bakarra da autoan gindoazela, Tolosako bidean. Gabon-eskerako baserritar jantziak erostera gindoazela badakit, iazkoak txikiak geratu zitzaizkien eta. Oraindik bi aste falta dira Gabonetarako, baina dena ondo lotuta edukitzea gustatzen zait, azken momentuko ezustekorik gabe. Nork eramango zituen gaur eskolara? Ez dut gogoratzen Anderrek goizez edo gauez lan egiten duen.

Ez dut ulertzen lotuta egotearen zergatia. Arrisku bat al naiz? Zergatik jantzi dizkidate eskularru zuri hauek? Dutxa bero bat eskertuko nuke. Izerdi patsetan nago; oinetan ere galtzerdiak ditut. Inork ez al dit kasurik egin behar? Erizainak bukatu du bere egitekoa. Poltsikoan daraman mugikorra dardarka hasi da. Bizkarra eman dit deiari erantzuterakoan, baina ikusi dut modelo berri bat dela, zilarrezkoa eta biribila; sekula ez dut honelakorik ikusi. Egu-nero traste berriak asmatzen ari dira, ordu gutxitan mundu osoan saltzen direnak. Nola aldatu den gizartea azken urteotan, onerako eta txarrerako.

Gelatik atera, eta lankide batekin topo egin du logelako atean; egin dion galdera ongi entzun dut: Zenbat denbora zu ikusi gabe. Zer moduz zaude, Tatiana?

Tatiana?

Kanpoko oihu batzuek esnatu naute. Zalaparta handia dago pasilloan.

Argazkirik ez! Hau ospitale bat da, ezin duzue hemen egon.

Pertsona famaturen bat egongo da nire solairu berean; benetan ezaguna izan behar du, kazetariak gauean honela sartzeko. Aktore edo abeslariren bat, beharbada. Batzuk edozer gauza egiteko prest daude argazki bat lapurtzeko, eta bestiak, berriz, aldizkarietako azaletan ateratzeko. Luxuz betetako etxeak erakusten dizkigute, dituzten miseriak ezagutzen ditugun arren. Inongo lotsarik gabe. Portzelanazko aurpegiek irribarretsu begiratzen diote kamerari, harro. Hezurretan daude, baina txokolatea izan ohi dute jaki gus-tukoena, eta ez dute inoiz dietarik egiten; parkean erretzen omen dituzte kaloriak, seme-alaben atzetik korrika. Eta batzuek sinetsi. Galdetegi motzak ere egiten dizkiete batzuetan, azkar irakurtzen direnak, gure txutxu-mutxu gosea asetzeko. Ez zaigu beraien bizitza axola, baina irakurtzen ditugu. Nirea haxe izango litzateke:

Izena: Ane

Jaiotza data: 1976ko martxoaren 28a. Donostia.

Mendi bat: Ernio

Jaki bat: patata tortilla

Edari bat: ura

Bizileku bat: Donostia

Kolore bat: urdina

Film bat: 27 ordu

Oporrak igarotzeko tokia: Kanariar uharteak

Liburu bat: Eulien ugazaba (William Golding)

Norbait sartu da nire logelara, eta esnatu egin naiz. Erizain gaztea da, esku finak dituen. Dutxa bat hartu nahi dudala esan diot, baina ezinezkoa dela erantzun dit. Pijama aldatzera etorri omen da, eta, mesedez, txorakeriarik ez egiteko, askatu egin behar nauela. Begiak estali dizkit maskara antzeko batekin. Zertan dabil? Izutzen ari naiz, hau ez da normala. Eskumuturrak libre sentitu bezain laster, bultzakada bat eman, eta paretaren kontra bota dut. Aterantz joaten saiatu naiz, baina hankek ez didate erantzuten. Lau han-

katan lortu dut atera iristea, eta, ireki dudanean, ertzain bat ikusi dut zutik, geldi, guardia egiten. Atea itxi, eta logelako komunean sartu naiz. Ez dut irtenbiderik. Hemen zerbait oker dago. Komun honek ez du ispilurik.

Ohean nago berriro ere, baina kolonia usaina dago. Ez nago bakarrik. Poliki-poliki, begiak ireki ditut. Buruko mina dut. Bi gizon daude niri begira, isilik. Dotore jantzita daude, trajearekin biak. Bat leihoaren ondoan, bestea nire alboan, aulki batean eserita. Ez dira oso altuak, baina aurpegi polita dute; ile horixka eta azala zuria. Alboan dudanak eskua eman dit. Eskularru zakarra laztantzen hasi da. Nor den galdetu diot, baina ezin du hitz egin; negar zotinak ez dio uzten. Beste gizonak leihotik begira jarraitzen du. "Esan nizun" entzun dut orduan. Esan nizun. Bi hitz hauek esan, eta begiratu egin dit. Ongi ezagutzen ditut begi horiek. Askotan egon naiz beraiei begira, zabalik zeudenean, itxita zeudenean. Munduko begi ederrenak niretzat. Eta orduan hizkuntza guztietako hitz politena atera da bere ahotik: Ama.

Sei egun pasa dira ospitalea utzi nuenetik. Jonen etxean bizi naiz, bere emazte eta alabarekin. Nire bilobarekin. Ane izena du, eta lau hilabete ditu. Oraindik zaila egiten zait gertatutakoa ulertzea, eta egunero joaten naiz psikiatraren kontsultara. Atzo hogeita hemeretzi urte nituen, eta orain ia hirurogei. Atzo ezkontuta nengoen eta bi ume txikiren ama nintzen. Orain alarguna eta seme txikirik gabe. Ni bihurtu naiz zaindu beharreko beraien alaba txikia. Koman pasa ditut hogeitazero urte. Kotxe istripua izan genuen. Errepidean zeuden egur batzuen gainetik pasa, eta autoaren kontrola galdu zuen Anderrek. Bera momentuan hil zen. Jon eta Mikel onik atera ziren. Hasierako kezka eta zalan-tza umeekin zer egitea izan zen. Norekin gelditu behar ziren? Diru arazorik ez zegoen, Foru Aldundiak kalte-galeren ordainketa egin zuen, eta egun batetik bestera kontu korrante potoloa izatera pasa ziren. Inork ez zekien nire bukaera zein izango zen, erabaki bat hartu beharra zegoen. Aitona-amonekin ala izeba-osabekin? Azkenean, nire ahizparekin geratzea erabaki zuten. Bera bihurtu zen beraien ama, eta urtebeteko lehengusua, anaia.

Bizitzak aurrera jarraitu zuen, nirea geldirik zegoen bitartean. Jon eta Mikel hasieran ez zioten utzi ni ikusten; barruko zauriak mingarriegiak ziren. Nola azaldu ume batzuei beraien ama lo zegoela, baina beharbada ez zela inoiz esnatuko? Nire gustuko musika jartzen saiatu ziren ni esnatzen, gra-

batutako semeen ahots eta abestiak ere entzun ziren askotan nire logelan, baina dena alferrik izan zen.

Mikelek hemezortzi urte bete zituenean, familia osoa bildu eta bizirik mantentzen ninduten makinak itzaltzeko garaia zela azaldu zien. Jonek ezezkoa erantzun zion, eta hor desegin zen bigarren aldiz familia. Bakoitzak abokatu bana hartu eta berriro egunkarietan azaldu ginen. Urte luzez izan da nire egoera telebista eta irratietako tertulien gai nagusia. Loti Ederra nintzen. Ehunka artikulua idatzi dituzte ni eta nire familiari buruz.

Orain dela bi egun ospitalean egon nintzen urte hauetan guztietan ni zaintzeaz arduratu diren mediku eta erizainekin. Malko mordoak bota genituen, pozik. Han zegoen Tatiana ere, nire ikaslea, erizaina. Medikuek inoiz ez dute jakingo zergatik esnatu nintzen. Hipotesi desberdinak dituzte. Tatiana zegoen momentu horretan, eta nik arrazoia bera dela pentsatu nahi dut; bera izan zela beste mundua eta hemengoa lotu zituen zubia, bere garaian Nikaragua eta Euskal Herria lotu nituen bezala.

Mikelekin ere egon naiz. Nik hitz egin nuen; bera ez zen kapaza ezer esateko; burumakur egon zen elkarriketa osoan. Ulertzen niola esan nion, bera izan zela hogeitazko urtez sufritzen egon zena eta ez ni. Larunbat honetan bazkaltzeko geratu gara.

Jonek etxeko ispilu guztiak kendu ditu; zaila egiten zait nor naizen onartzea. Nire amaren antza dut: ile motza eta zuria; zimurrez betetako aurpegia.

Gurpildun aulki batean mugitzen naiz oraindik, baina uda izango da las-ter, eta irrikan nago Ondarretako harea nire oinetan sentitzeko; itsasoan murgiltzeko; bizirik nagoela sentitzeko. Dudan pena bakarra da Ander ni-rekin ez egotea; bere semeak nola hazi diren ikusteko aukera galdu izana; baina dagoen tokian dagoela ere esan nahi diot: MAITE ZAITUT.



■ E. maila • **2. saria**

MAIDER GARIN BAKERO

.....

Direnik, ez da sinetsi behar; ez direla, ez da esan behar

Kattalin, Mari sorgin (21 urte)

Lehenik eta behin, eltzea infernuko errekako urez bete beharra zagon, eta bertan, zapo bat sartu. Eltzea sutan jarri, eta ura irakin arte itxaron behar dinagu orain; momenturen batean, zapoak igeri egiteari utziko din. Hala ere, kontuz ibili hadi, Kattalin, zapoa eltzera dagoeneko urak irakin duenean botatzen badun, jauzi bat eman eta ihes egiten din. Ondoren, behin zapoa hilik dagoela ikusten duenean, plasta-plasta egin arte zapaltzen badun, berde koloreko likido mikatsu bat irtengo zain ahotik; likido hori dun berriro ere eltzera isuri behar duana.

Ondoren, gaur goizean basoan jaso dizkinagun perretxikoak gehituko zizkionagu eltzeari, puntutxo zuri eta txapel gorridun horiek. Eta, hirugarrenik, berbena belar eskukada bat, pasmo belar pittin bat, intsusa adar batzuk. Nik marrubi batzuk gehitzen dizkinat, usain goxoagoa izaten baitin horrela...

Orain, sartu ezan behatza ezkerreko belarrian. Ea, ikusi nahi dinat hori...

(Behatza belarrian sartu, eta atera nuenean, behatz punta argizariz zikinduta atera zen).

Horrela gustatzen zaidan, belarriak zikin-zikin edukitzea. Ea bada, argizari hori guztia gure nahasketari gehituko zionagu. Eta nahastu, nahastu, nahastu, nahastu. Poliki-poliki, kolorez aldatzen dun, ikusten?

Azken osagaia falta zaigun: haur bati jausi zaion lehen hortza.

- Baina, amona. Nondik lortuko dut nik haur baten hortza! Erotu egin al zara?

Haur guztiek, lehen hortza jausi eta ondorengo gauean, hortza burko azpian uzten dinате, hurrengo goizean, hortzaren ordeз, urrezko txanpon bat aurkitzeko esperoan. Haurrak lotan daudela, euren logeletako leihotik logeletara sartu, eta trukea egiten dinagu.

Horrela, amona Maritxuk hegan egiteko ukendua nola egin irakatsi zidan.

Biluzi, eta gorputz guztian igurtzi behar dinagu ukendua. Behin ondo igurtzita, sukaldeko leihora hurbildu ginen (lehen zorabioak sentitu nituen). Amonak abesti bat erakutsi zidan...

Baga, biga, higa
Salto, jauzi eta kalejira.
Laga, boga, sega
Goazen akelarrera!

Abestia sukaldetik eskutik emanda saltoka genbiltzala abestearekin batera, (erabat zorabiatu rik geratu nintzen...) nire oinak lurretik altxatu ziren, eta amonaren eskua askatu gabe, etxeko leihotik hegan irten ginen. Lainoetara irstear ginela, su handi bat begiztatu genuen, eta harantz abiatu ginen. Horrela iritsi nintzen nire lehen akelarrera.

Lurdes, Kontxi, Bernarda eta Maria, nire lagunak, igandero herriko elizara joaten ziren, dotore-dotore jantzita. Eta ni norekin jolastu ez nuela geratu ohi nintzen. Lurdes eta Kontxiren ama (biak ahizpak baitziren) igandero etortzen zen amonaren baserrira, ea eurekin mezetara joan nahi nuen galdetzka. Baina amona atzetik etortzen zen, larreko behiek ihes egin zutela eta bila joan behar ginela, edo txerria hil behar genuela, ahuntza umea egiteko zorian zegoela, edota nire soinekoa (sekula ikusi ez nuen hura) motzegi geratu zitzaidala eta oraindik konpontzeke zuela esanez. Hasiera batean, ez

zitzaidan asko axola 'mezetara' deitzen zioten leku hartara ez joatea; Zertara joan nahi dun mezetara, tuntun horrek! Apezak zentzurik ez duten hitzak besterik ez ditin esaten, 'latin' izeneko hizkuntza batean hitz egiten omen din. Gainera, lan asko zeukanagu egiteko.

Baina Lurdes, Kontxi, Lutxi eta Maria maizago hasi ziren herrira jaisten, gaur ezin dinagu hirekin onddo bila joan, Kattalin, katekesira joan beharra zukanagu. Amonari nik ere katekesi izeneko leku hartara joan nahi nuela esaten nion. Izan ere, nire lagunek katekesian Jaungoikoa ezagutu omen zuten. Zer uste zuen, bada, Jaungoiko horrek? Nire lagunak kenduko zizkidala? Ikusiko zuen, bada. Lasterketa bat proposatuko nion, ea nor zen azkarragoa (ezin zuen nire lagunek esaten zuten bezain txundigarria izan denean, ez baitzegoen munduan ni baino azkarrago lasterka egiten zuenik). Nire lagunek, zein azkarra nintzen ikusita, laster utziko zioten Jaungoikoaren laguna izateari, eta berriro ere nire lagunak berreskuratuko nituen.

Amona barrez lehertu zen, nire asmoak kontatu nizkionean. Jaungoikoa ez dun pertsona bat, Kattalin. Hire lagunak kristauak ditun.

- Zer da Kristaua izatea, amona?

- Mmmm... Esadan, bada... nori eskatzen dion hik laguntzeko, basoan galtzen haizenean?

- Mari Ederrari, amona. Bera baita naturaren, ekaitzen, basoaren, suaren eta sorginen erregina. Bere kobazulotik, denok zaintzen gaitu.

- Eta, gure etxeko abereak, nork babesten ditin?

- Akerbeltzek, amona, abere guztien zaindaria.

- Eta nork zigortzen ditin gaiztoak, Kattalin?

- Sugaarrek, Mariren senarrak. Haserretzen denean, ekaitzak sortzen ditu.

- Eta nori eskatzen dien laguntza, nik agintzen dizkinadan etxeko lanak egiteko?

- Inori ez, amona; nik egiten ditut.

- Kattalin...

- Galtxagorriei. Baina oso larri nabilenean soilik...

Hire lagunak ez dinat Mari, Akerbeltz, Mikelats, Atarrabi edota Gaueko ez euren ahalmenik ezagutzen. Eurentzat jaingo bakarra zegoen: Jaungoikoa. Dena den, dagoeneko koxkortu haiz, eta gaur gauean nirekin eramango haut akelarrera. Ikusiko dun nola joango zaizkinan katekesira joateko gogoak!

Zoramena amonaren eskutik egin nuen gaueko hegaldi hartan hasi zen.

Hankak Mariren Kobazuloa deitzen genion haitzuloaren kanpoaldean jarri genituen lurrean, eta bertara barneratu ginen. Zenbat eta sakonago, ozenago entzuten ziren dultzaina, txistu eta danbolin melodiak, irrintzi amaigabeak, amonak txikia nintzela abesten zizkidan kantuak... Eta, noski, zenbat eta sakonago, gertuago senti nezakeen suaren berotasuna. Urduritasunak jota, berriro ere hegan aterako nintzela uste nuen.

Haitzuloaren sabelera iritsi ginenean, ezin nuen nire begien aurrean neukana sinetsi: adin guztietako neska-mutilak zebiltzan suaren inguruan dantzan, salto, jauzi eta kalejira.... Amonak eskutik tira egin zidan, eta suaren inguruko kalejira hartan murgildu ginen; eta, berriro ere, amonaren etxeko sukaldean sentitu nuen zorabio hori sentitzen hasi nintzen... Baga, biga, higa...

Ohartu orduko, oilarraren lehen kantua entzun zen, eta denok desagertu ginen.

Egunak amonak 'gaur akelarre gaua dun, Kattalin' noiz esango pasatzen nituen, atzean utzitako gau haiek goitik behera errepasatzen. Eta gau hura iris-tean, poz-pozik jartzen nintzen, eta, berriro ere, zorabio haiek sentitzen nituen.

Mariren Kobazuloan lagun berriak egin nituen. Hasierako egun haietan, suaren inguruan dantzan ibili baino, nahiago izaten genuen Kobazuloko errekan zapoak harrapatzen ibili. Edota haitzuloko txoko guztiak miatu, ezkutaketetan jolastuz. Niri gehien gustatzen zitzaidana, ordea, amona eta bere lagunekin suaren inguruan esertzea izaten zen, aspaldiko istorioak kontatzen zizkiguten bitartean. Baina, koxkortxoago egiten joan ahala, bihurriagoak egiten joan ginen.

Ezpainak sagardo eta ardo goxoz bustitzea gustatzen zitzaigun, erabat zorabiatuak geratu arte. Oinak lurretik altxatu gabe hegan eginarazten zigiten belarren kea arnasten genuen batzuetan. Eta, zorte apur batekin, onddo magikoak izaten genituen afaltzeko. Akerrari ipurdian musu emateak txoro-txoro uzten ninduen gau guztirako. Eta txorotasun hartan murgilduta eman nituen nire lehen musuak.

Ez nuen, ez, sekula, oilarraren kukurrukuarekin iristen zena nahi. Iluna nahi nuen betiko. Iluna, suaren inguruan dantzatzeko; sorgin kantuak kantatzeko; Mari, Sugaar, Akerbeltz, Atarrabi... inoiz baino gertuago sentitzeko; edari, belar eta usain haiekin erotu, eta esna amesteko; Mariren Kobazuloaren kanpoko larreko belar bustiaren gainean lehen musu horiek lehen maitasuna bihurtzeko.

Sekretu txiki bat nuen: sorgina nintzen!

Goiz batean, Lurdes, Kontxi, Bernarda eta Maria ate joka etorri ziren etxera. Erabat aztoratuta zeuden.

Herria dagoeneko ez dun segurua, Kattalin! Herria sorginez josita zagon! Gauetz geure logeletako leihotatik sartu eta jan egingo gaitizten! Jainkoari eskerrak, gaur arratsaldean Espainiako salbatzaileak etorriko ditun! Sorgin guztiak harrapatu, eta sutan erreko omen dizkinate! Ai, ene bada, azkar helduko ote ditun... Sorginek begizkoa botatzen badinate, apo bihurtzen omen haiz!...

Noiz isilduko ziren galdetzen nion neure buruari. Baina ez ziren isiltzen; egunak joan, egunak etorri, salbatzaileak gora, sorgin gaiztoak behera.

Horregatik, eurak jango zituzten sorginek egingo luketen moduan, logelako leihotik, Lurdes, Kontxi, Bernarda eta Mariaren logeletara sartu nintzen, banan-banan. Amonak aspaldiko egun hartan prestatzen erakutsi zidan ukendua hartu, eta gorputz guztian igurtzi nien, eta amonak behin nirekin egin zuen moduan, leihotik hegan atera ginen. Ziurrenik, artean ametsetan zeudela usteko zuten...

Oilarraren lehen kantua entzun arte ibili ginen suaren inguruan dantzan, kantuan, firin-faran, barre eta barre, irribarrea ahoan. Edo hala iruditu zitzaiz-

dan niri, behintzat; baina Mariak, ahoan irribarrea baino, barre maltzur bat marraztua zuen.

...

1610. urteko azaroaren lehen igandea da. Soineko beltzez jantzitako gizon hauek Zugarramurditik, Logroño deitzen dioten hiri handi batera ekarri naute... Euren zaldien atzetik arrastaka, eskuak loturik eta biluzik, igarotzen genuen herri bakoitzeko, herritarren harrikada eta irainak jasoz.

Logroñoako plazaren erdian, enbor handi bati lotu naute. Soineko beltzez jantzirik dauden gizon hauek ulertzen ez ditudan hitzak besterik ez dituzte esaten. Plaza jendez josita dago, Sorginak sutara! Sorginak infernura! Sorginak deabruarengana!

Soineko beltzez jantzirik dagoen eta lepoan zintzilik gurutze bat daran gizon batek sua piztu du nire oinetan.

Suak kiskali eta infernura eraman zaitzala, izaki gaizto hori! (Eta berriro ere, ulergaitzak zaizkidan hitz horiek errepikatu ditu).

Baina berak ez daki suak ni akelarrera naramala...

Baga, biga, higa
Sua berotzen hasi da;
Laga, boga, sega
Goazen akelarrera!

